



## Dena prest aste biko jaiari ekiteko Elorrión

**Gehigarria** • Elorrioko Ferixa Nausikoak zapatuan hasiko dira, Erdella Mendi Taldeak eta Berrio-Otxoa abesbatzak botariko txapliguagaz. Egitarauan ez dira jaietako ikur diren sukalkiak eta kuadrillen mozorroak faltako. Musika arloan, Esne Beltza, Anari, Xabi Aburruzaga eta Kai Nakai nabarmentzen dira. • **13-20**



### "Espainiako Vueltako epaile lanak ondo irteten dabilta"

**Txirrindularitza** • Jokin Bilbao durangarra epaile lanetan dabil Espainiako Vueltan. Lehenengo egunak estresagarriak egin zaizkio, ezusteko asko izan direla eta. • **28**



### Lotxo, Gertufest eta fideua txapelketa Izurtzako jaietan

**Gehigarria** • Jaiei hasiera emango dien txapligua gaur iluntzean botako dute, 20:00etan, udaletxeko balkoitik. • **21-23**

## "Whatsapp, Instagram, sare sozialak... ez dira txarrak; ondo erabiltzea da kontua"

**Elkarrizketa** • Maider Del Río Larramendi osasun psikologoa da. Adeitu Psikologia zentroan jarduteaz gainera, umeekin, nerabeekin eta gazteekin esku hartzen du Durangaldeko hiru herritako ikastetxeetan. Nerabeen kezkek, sare sozialak, gazteek mundua aldatzeko duten bulkada eta errutinarako buelta ditu berbagai. • **2-3**





**Maidel Del Río Larramendi**

Osasun psikologoa

ELORRIO | 1979

## “Sare sozialek handitu egin dute gure buruari ipinitako exigentzia maila”

Tik-tok, Instagram, Whatsapp. Horiek eta gehiago boladan dauden sare sozialak dira. Nerabeek eta gazteek sarri darabiltzate, baina helduak ez dira salbuespen. Maidel Del Río dioenez, gailuok ondo erabiltzea da kontua

**OSASUN MENTALA • EKAITZ HERRERA**  
**Maidel Del Río Larramendi (Elorrio, 1979) osasun psikologoa da. Hainbat lan arlotan esku hartzen du. Batetik, beste hiru lankidegaz batera osaturiko Adeitu Psikologia zentroan, Durangon. Bestetik, Abadiñoko, lurretako eta Zaldibarko ikastetxeetan, eta, azkenik, Durangoko Udalak martxan ipinitako psikobonuen programan. Oporren osteko errutina, nerabe eta gazteen kezka iturriak zein hartu-eman digitalei buruzko kontuak izan ditu berbagai ANBOTOK ikasturte hasieran egin dion elkarrizketan.**

**Ikasturte berria martxan da eta, urtero lez, bolo-bolo dabil ‘Oporren osteko sindromea’ deitzen dugun hori. Baina, badago halakorik? Egiazko sindrome bat da?**  
Badago oporretatik errutinara egokitu arteko trantsizio bat, bai. Egokitzapen prozesu bat da. Oporretan ordutegirik barik eta libre egotetik errutinara bueltatzen garelako. Baina hori guzti hori sindrome bat den? Ez dago definituta. Bajutxo gaudela esan dezakegu, baina ez da *trastorno* edo nahasmendu bat. Nekea, saminkortasuna, logura, malenkonia, antsietatea edo kon-

zentrazio eza sentitu ditzakegu. Baina denbora bat pasatuta, etorritako bide beretik doan zerbait da. Egokitzapen prozesuaren zati da. Eta bere kabuz joaten ez bada, orduan bai, orduan arazo bat dago. **Errutina ikastetxeetara ere bueltatuko da laster. Zuk eskualdeko hiru herritako ikastetxeetan esku hartzen duzu umeen gurasoekin, nerabeekin. Zeintzuk dira haien korapilo nagusiak?**

Normalean, lagunarteari edo ikasketei loturiko kezkak dituzte. Ingaratzen dutenarekiko partaide izatea bilatzen dute. Umeak, adibidez, zorientsu dira haien ingurukoekin hartu-eman onak dituztenean, gurasoekin, lagunekin, irakasleekin. Egunerokotasunean arazo batzuk izan ditzaketen arren, modu orokor batean zorientsu dira hartu-eman onak dituztenean. Sostengu hori badaukate, normalean nahiko zorientsu izango dira. Gehienetan, gurasoak dira etortzen direnak. Umearen fobiak, beldurrak, kasketak, ikasketa arazoak, gurasoengandik banatzea,... horrelakoak lantzerantz etortzen dira.

**Eta nerabeen kasuan?**  
Gauzak asko aldatzen dira. Batetik egokitzapen prozesuak daude. Adibidez, Lehen Hezkuntzatik DBHra salto egiteak ekarri dezakeen desafioa. Egokitzapena egitea gehiago

kostatzen da. Bestetik, antsietatea eta depresioa daude. Oso ohikoak dira. Ingurune batean zure lekua egin gura eta ezina, trebezia sozialik eza, besteek norberarenganako izan dezaketen biolentzia, horretarako arrazoi asko dago. Sarri, nerabeek ez dakite zer gertatzen zaien. "Ez nago ondo, baina ez dakit zer gertatzen zaidan", esaten didate. Gurasoekin izaten dituzten ika-mikak, ardurak hartzea, lehenengo

**Whatsappa tresna eraginkorra da hitzorduak egiteko, baina desastre bat debate bat egiteko**

hartu-eman afektibo eta sexualei loturikoak, identitateari eta sexualitateari loturikoak... emozioak isiotzen diren sasoia da, emozioek goia jotzen duten sasoia. Gero norbere autoestimuarri, autoirudiari eta norbere buruaren onarpenari loturiko gaiak daude. Norbere gorputzari eta ematen den irudiari loturikoak. "Balio ote dut ala ez?", galdetuz bezala. Orokorrean, nahiko autoestimu baxuagaz etortzen dira. Eta, jakina, hor sare sozialak ere sartzen dira jokoan.

**Sare sozialen presentzia igartzen da kasu horietan?**

Lehen, arazoa zure eta nire artekoa izan zitekeen, aurrez aurrekoa. Baina orain, klik bakar batean, 50 pertsonak dakite zuk eta nik arazo bat duguna. 50 horiek posizionatu egiten dira eta hor gatazkak kudeatzea ez da hain erraza.

**Telefonoak gure arteko hartu-emanak aldatu ditu?**

Berbarik bako komunikazioa guttuz galtzen da, eta horrek arazoak sortu ditzake mezuak interpretatzerako orduan. Whatsapp oso tresna baliagarria da gauza batzuk komunikatzeko. Hitzorduak egiteko, baten bategaz geratzeko, baten bati zelan dagoen galdetzeko. Oso tresna eraginkorra da komunikazio hori mantentzeko, presentzia mantentzeko. Baina eztabaida bat izateko, adibidez, Whatsapp desastre bat da. Gai polemiko batek irteten duenean, egundoko iskanbilak sortu daitezke. Berdin Rubiales auziari buruz berba egiterakoan edo gure auzo elkarteko Whatsappean. Informazioa oso mugatua da eta lau lerrotan adierazten duzu zein iritzi duzun. Gai serioak Whatsappez tratatzerakoan, gehiago korapilatu baino ez dira egiten. Hobeto da aurrez aurre lantzea, baina gazteek, askotan, Whatsappera jotzen dute.

### Eta Youtubek, Instagramek eta halakoek zelan eragiten diete?

Tresna horietan, nerabeek lider modukoak topatzen dituzte, ispilu lez erabiltzen dituzten ereduak. Baten batengan islatu eta horren aurrean kokatzen dira. Galdera honi erantzutearen modukoa da: "Nork egiten nau ni baleko?". "Pertsona honengan islatuta, non kokatzen naiz ni?". Eta Interneteko ispilu horietan islatzen direnean, askotan sentitzen dute "nik ez dut balio" moduko bat. Hau da: zuk izan ditzakezu oso onak diren bost lagun, baina hori balekoa da? Ala balio duena jarraitzaile edo *follower* kopurua da? Momentu oro egon behar dut gauza interesgarriak egiten eta horiek sare sozialetan komunikatzen besteentzat interesgarri izan nadin? Balioak aldatu egin dira. Kuadrillan bost, zazpi, hamabost izan gintezkeen lehen. Eta kito. Orain, oster, sozialki daukaten exijentzia maila handiagoa da. Aldaketa potente bat gertatu da eta hori kudeatzen ikasi behar da. Ez dut esaten sare sozialak txarrak direnik. Ez dira ez onak ez txarrak. Maneiatzen ikasi behar dugu.

### Eta helduagoak garenok libratzen gara hortik?

Gugan ere badu eragina, jakina. Whatsapp modu egokian erabiltzen dugu? Bada, ez dakit. Zenbat

denbora igarotzen dugu Instagramen istorioak ikusten? 50 urteko heldu batek Instagram erabiltzen badu, zelan erabiltzen du? Behar bada modu baldarrago batean, baina ziur antzeko helburuekin ere egiten duela. Esan dudana moduan, erabilera ona bada tresna positiboak dira. Telebistagaz gertatzen zen lehen, sare sozialekin orain.

**Nerabeek eta gazteek kuriositatea daukate, idealistak dira, eta kritikoak dira helduekin**

### Pandemiak zein eragin izan du erabilera digitaleko gailuetan?

Joera asko areagotu da ordutik, baina badu azalpena. Nerabeek irtetea behar dute, usaintzea, ukitzea, sentitzea. Horrela sozializatzen dira, lagunak eginez, jendea ezagutzen, esperimendatzen. Hori ezinbestekoa dute. Eta zer gertatu zitzaion pandemian? Batetik, gurasoak zitu zela ondoan uneoro. Eta, bestetik, sozializatzeko espazioa kendu zitzaizela. Isolamendu horren irtenbidea sarean topatu zuten. Sareak asko erabiltzea eragin zuen horrek. Eta esango nuke orduko inertzia

horrek gaurdaino iraun duela. Tik-token edo halakoren batean ez bazaude, ez zara ezer. Nerabeek eurek galdetzen didate: "Zelan ez daukazula Tik-tok konturik?". Erantzuten diet egunen batean erabiltzaile egingo naizela. Kimika ona lortzen da haiekin. Nerabeek badute magia hori, izugarri ikasten da haiekin. Helduak garenok uste dugu dena dakigula. Baina ez. **Goazen orain botila erdi beteta ikustera. Zeintzuk dira umeen eta nerabeen aukerak, ametsak, motibazioak, gaitasunak?**

Nerabearoa eta gaztaroaren lehen zatia sentimenduek goia jotzen duten unea da. Ume izatetik, gurasoak mirestetik, zu zeu izatera igarotzen zaren aroa. Eta hor krisialdiak eta momentu oso-oso onak tartekatu daitezke. Nerabeek eta gazteek kuriositatea daukate, idealistak dira, mundua aldatu gura dute. Eta oso kritikoak izan daitezke helduok. Ziniko lez ikusi gaitzakete. Zerbait egin behar dela esaten dugula baina gero beste bat egiten amaitzen dugula ikusten dute. Bestetik, lan altruista asko egiten dute. Denbora libreko monitoreengan edo kirol entrenatzaileengan ikusten da hori. Berdin Saharara laguntza edo elikagaiak bidaltzeko duten prestutasunean. Aurrekoan heldu

batek komentatzen zidan gazteak ez direla altruistak. Baina ez, ez da horrela. Kontua da gazteek ez dutela guk altruistatzat dugun hori egiten. Altruistak izan badira. Haien erara egiten utzi behar zaie. Horrez gainera, oso enpatikoak dira iruditzen zait. Haien emozioak kudeatzen asko laguntzen dute elkar. Ezberdinak dira, beste belaunaldi bat dira, eboluzio bat dira. Eta bilakaera horretan, desberdin sentitu behar dute.

**Durango psikobonuek oso harrera ona izan dute. Irailean, proiektua berraktibatu egingo delakoan nago**

**Durango Udalak proiektu berri bati ekin zion ekainean. 14tik 35 urtera arteko durangarren eskura psikobonuek ipinita, osasun mentalaren zaintza lantzeko proiektua hasi zuen. Zuk bertan esku hartzen duzu Bizkaiko Psikologo Elkargoko beste hainbat kidegaz batera. Zer moduzko esperientzia izaten ari da?**

Abuztua erdian izan dugula kontuan hartuta, nahiko esperientzia ona dela esango nuke. Jendea badabil mugitzen, gazteak badabil-

tza deitzen. Erabiltzen ari direnak baino askoz psikobonu gehiago daude salduta. Beraz, aurrekusten duguna da irailtik aurrera proiektua berraktibatu egingo dela. Programagazko erantzuna oso ona izan delakoan nago. Bizkaiko Elkargoko dozena bat psikologo ibili gara lanean. Prozesuaren edozein momentutan gehiago sartu daitezke. Adeitu Psikologia zentroan lau psikologo gaude, eta denon artean hogeit bat pertsona artatzen gabilta. Elkarlanean sinesten dut. Bai eskolan, lanean, instituzioekin eta zuekin, heda-bideekin.

### Osasun mentala zaintzeari behar den moduko garrantzia ematen diogu?

Pandemiak ekarri duen onuratariko bat osasun mentalari buruz berba gehiago egitea izan da. Etxean, zarratuta egonda, gorputza zaintzeari buruz barik ongizate mentalari buruz berbetan egon gara. Zelan zaindu, zer egin. Esango nuke komunikabideek mahai gainean ipini dutela gaia. Orain arte ez zen horri buruz hainbeste berba egiten. Bestalde, nerabeek ez dute lotsarik psikologoarenera etortzeko. Naturaltasunez hartzen dute. Oraindino badago tabu hori aldatzeko beharrezana, baina kontua ez da lehengo modukoa.

# TREBAKUNTZA DIGITALA



## ONLINE KOMUNIKAZIOAK – I

8 ordu

- Senide eta lagunekin nahiz administrazioarekin komunikatzeko bideak. Nola komunikatu modu seguruan
- Whatsapp eta Telegram
- Posta elektronikoa

## ONLINE KOMUNIKAZIOAK – II

8 ordu

- Sare sozialak
- Bideokonferentziak

## ONLINE KUDEAKETAK

- Banku elektronikoa: Segurtasuna
- Osakidetza: Aurretiko hitzordua eta osasun-karpeta eskatu
- Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza: Bakq lortu eta izapideak egin
- Udala

6 ordu

Ikastaroak **URRIAN** eta **AZAROAN** emango dira, egunean 2 orduko saioetan 55 urtetik gorakoek izango dute lehentasuna.

Izena ematea, irailaren 1etik aurrera. **Deitu eta informazioa emango dizugu !!**



Urritxe auzunea, z/g · **Tfno: 94 673 02 51**

48340 AMOREBIETA-ETXANO (Bizkaia)

e-mail: [info@fpzornotza.com](mailto:info@fpzornotza.com) [www.fpzornotza.com](http://www.fpzornotza.com)

## DURANGO • EKAITZ HERRERA

Gazte bi hauek bizi berri bat eman-  
go diote Goienkalean urte luzez  
erroturiko tabernari. Brunch era-  
ko gosariak, zuzeneko musika,  
garagardo eskaintza zabala zein  
giro gaztea eskaini gura dute. Asier  
Bañosek erantzun die ANBOTOren  
galderi.

**Gazteak eta ekintzaileak. Segurue-  
nik zuek izango zarete Goienkale  
osoko tabernaririk gazteenak.**

Ez dugu geure burua betiko osta-  
lari lez ikusten. Gure lanbideak  
ditugu. Baina bai Ander eta bai  
ni hainbat saltsatan sarturikoak  
gara. Keep Real arropa marka eta  
Naiz Market kudeatzen ditut nik,  
eta EH Jaiak Instagram kontua  
darama Anderrek. Honako hau  
proiektu bat gehiago da guretzat.  
Izan ere, Anderrek Sopolako La  
Bocateria establezimendua kudea-  
tu du pare bat urtez, eta nik zortzi  
urtez lan egin dut hainbat taber-  
natan zerbitzari legez. Taberna  
baten ardura hartzeko gogo  
sartu zitzaigun bioi, eta halantxik  
egin dugu.

**Zergaitik Gure Kabiya?**

Gogoan dut behin Jai Berrin afal-  
du genuela Anderrek eta biok,  
elkarri zer moduz genbiltzan  
kontatzeko. Halako batean, An-  
derrek esan zidan Gure Kabiya  
zarratu zutela. Nik atoan bota  
nuen: "Hartuko al dugu?". "Bai  
zera!", erantzun zuen berak. Eta  
hara! Zazpi minutu pasatxotan  
erabaki genuen baietz, Gure Ka-  
biya hartuko genuela. Motibatu

# "Brunch gosariak, formatu txikiko emanaldiak,... Gure Kabiya balio erantsi bat izatea gura dugu"

26 urte ditu batek, 25 besteak, eta, seguruenik, eurak izango dira Goienkaleko tabernarien artean gazteenak. Asier Baños eta Ander Hilera durangarrek Gure Kabiya tabernaren ardura hartu dute. Oraingoz, eguenetik domekara zabalduko dute

ginen, eta berehala hasi ginen  
lanean.

**Taberna berrituak zein ezaugarri  
izango ditu?**

Hasieran, eguenetik domekara  
zabalduko dugu. Izan ere, gauzak  
ondo egin ahal izateko astiro  
joan gura dugu. Eguenetako  
pintxo-poteak ondo funtziona-  
tzen du, eta orain arte ikusi ez  
den pintxo bat eskainiko dugu  
gurean. Barikuetan normal jar-  
dunago dugu, eta zapatueta eta  
domeketan errazioak eskainiko  
ditugu. Txibierroak, txopitoak,  
kroketak, pernila... Bestalde,  
formatu txikiko kontzertuak es-  
kaintzen hasi gura dugu, eta au-  
rrera begira brunch erako gosar-  
iak ere eskaini gura ditugu. Oso  
boladan daude eta era bitan fun-  
tzionatu gura dugu: erreserbekin  
zein etorri ahala. Azken finean,  
balio erantsi bat bilatu gura dugu.

**Igartzen da gauzak argi dituzuela.**

Bai. Buruan ideia argi bat daukagu,  
baina posible da eskaeraren arabe-  
ra eta denboraren arabera molda-  
ketak egiten joatea. Garagardoak  
bikain zerbitzatu gura ditugu.  
Kafeak, apar apainduagaz. Gazte  
taberna bat izan daitekeelakoan  
gaude.



Ander Hilera eta Asier Baños.

**Gazte taberna bat izango da?**

Neurri handi batean, bai. Izan  
ere, kale honetako goialdeko  
tabernetan gazteria mugitzen  
da. Esango nuke hori izango de-

la gure indargunea. Baina aste  
barruan zabaltzen hasten gare-  
nean, profila bestelakoa izango  
da seguruenik. Eguneko potea  
egongo delakoan gaude. Zapatu

honetan musika izango dugu.  
El Despiste txaranga kontratatu  
dugu, eta musika jartzaile bi  
ere izango ditugu: DJ Kuku eta DJ  
Corti.

## Durangoko Udalak fitness gelako arreta eta gidaturiko jardueren eskaintza zabaltzea proposatu du

## DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko udal agintariek propo-  
samen berri bat landu dute herriko  
kirol zerbitzuen eskaintza "zabal-  
tzeko eta indartzeko". Plantea-  
mendu berria lau ardatz nagusitan  
oinarritu dute: Bat: fitness gelako

arreta zerbitzua "uneoro" eskain-  
tzea planteatu dute, 18:00etatik  
20:00etarako ordu tartean "errefor-  
tzu bat aplikatuta. Bi: monitorea  
gidaturiko kirol jardueren eskain-  
tza %20 handitzea gura dute. Hiru:  
rokodromoan arreta zerbitzua

handitu gura dute martitzenetan  
eta eguenetan, egun horietan ordu  
biko arreta zerbitzua eskainita. Eta  
lau: Kirol Orientaziorako Zerbitzua,  
herritarrei kirola egitearen onurak  
azaltzeaz zein egokitzeaz ardura-  
tzen den tresna, %20 handitzea gu-  
ra dute. Mireia Elkoroiribe alkateak  
"kirol zerbitzu publikoen kalitatea  
eta erabiltzaileen konfiantza be-  
rreskuratu", eta azpikontrataturiko  
langileen greba konpondu gura  
ditu proposamen honegaz.



Mireia Elkoroiribe alkatea eta Jessica Ruiz alkateordea.

### anboto

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902

2023ko irailaren 1a  
21. urtea - 946. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru  
Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

## Durango Sariak arlo sozialean egindako lana ere aitortuko dute aurten

**DURANGO • J.G.**

Udalak Durango Sarien bigarren edizioa antolatuko du aurten, "kirol, gizarte eta kulturaren arloan elkarrekin, klubek zein pertsonen egindako lana publikoki aitortzeko". Sarien artean kategorია berri bat egongo da aurten: arlo sozialekoa. Gizarte arloko elkarrekin bat sarituko dute. Gainerakoan, honako hauek izango dira sarituko dituzten kategoriak: Kirol Elkarrekin, kirolari nabarmena, kultur elkarrekin, kultura eremuan nabarmendutako pertsona edo erakundea eta sari berezia.

### Irailaren 18ra arte

Sariketara hautagaitzak aurkezteko epea irailaren 18n amaituko da. Horretarako, eskaera erregistratu beharko da Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bitartez edo Durangoko Udalen egoitza elektronikoaren bitartez. Ondoren, bozketa fasea helduko da. Irailaren 21etik aurrera aktibatuko da. Durango Sarien gala azaroan egitea aurreikusiko dute.



Jardunaldiak hile bakoitzeko lehenengo egunean egingo dituzte.

## Kontakatilu proiektua Zornotzan, abestien bitartez euskara lantzeko

Egitasmoa urritik aurrera ipiniko dute martxan. Izena emateko epea irailaren 29ra arte egongo da zabalik

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Zornotzako Udalak Kontakatilu egitasmoa ipiniko du martxan urritik aurrera. Euskal kanten bitartez euskara lantzeko jarduera izango da, hizkuntza praktikatzen eta herritarren euskarazko hartu-emanak zabaltzeko tarte bat eskainiko duena. Jardunaldiak hile bakoitzeko lehenengo egue-

nean egingo dituzte, 19:00etan. Hiru ordu laurdeneko saioak izango dira, eta amaiturikoan, egitasmoari segida eman ahalko zaio pintxo-pote eguna dela aprobetxatuta. Egitasmoa doakoa da eta 18 urtetik gorakoei zuzenduta dago. Izena emateko, Euskara Zerbitzura jo behar da (946 300 002 telefono zenbakia).

## Luze edo Motz bakarrizketa, Txan Magoa eta Xaibor, Eubako jaietan

Jaiak barikuan hasi eta domekan amaituko dira. Apar festagaz eta umeen eskulanekin hasiko dute egitaraua

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Eubako herritarrak prest daude auzoko jaiak ekiten. Ekitaldiak barikua honetan bertan hasiko dituzte, umeen apar festagaz eta eskulan tailerragaz. Ospakizunek hurrengo ordu zein egunetan jarraituko dute, hainbat ekitzagaz. Txan magoaren

erakustaldia, Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena umoregileen *Luze edo Motz* bakarrizketa, Bakioko Txerokiak taldearen erromeria eta Xaibor izango dituzte. Ekitaldi guztien ordu-tegiak astekari honetako Agenda atalean topatu daitezke (25. orrialdea).



Eubako jaietan egindako ekitaldi bat.

**BETI GERTU!**

**ELORRIORA**

**HEMENDIK**

Begiratu aukerak gure webgunean:  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)  
Tel.: 946 816 673  
Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta

## Arrankurri eremuan egitekoak diren egoitzarako "baldintzarik onenak" lortzen ahaleginduko da udala

Abadiñoko Independiente Berriaken eta EH Bilduren esanetan, Arrankurri ez da "eremurik egokiena" egoitza eraikitzeko

**ABADIÑO • A.M.**

Uztail amaieran, Mikel Urrutia alkateak, Edurne Maguregi alkateordeak eta Naiara Bildosola zinegotziak agerraldia egin zuten Abadiñon, adinekoentzako egoitza berriari buruzko azalpenak emateko. Gobernu taldearen esanetan, Arrankurri eremua ez da "eremurik egokiena". "Herrigunetik urrun egongo da eraikina, eta, gainera, erabiltzaileek %6ko malda igo beharko dute bertara joateko. Egoi-

tzarako sarbideak egokitze lanak Foru Aldundiak bere gain hartu ditzan ahaleginduko gara", azaldu zuen Mikel Urrutia alkateak.

Bestalde, egoitzaren kudeaketa publikoa izan dadin eskatu zuen Maguregik. "Paradoxikoa da kudeaketa publikoko zentro bat ipintzea zerbitzuaren eta instalazioen kalitatearen adibide modura, eta gero kudeaketa pribatuko egoitzak ugaritzea defendatzea", esan zuen.



Ezkerretik hasita, Naiara Bildosola, Mikel Urrutia eta Edurne Maguregi.



Gizakatea Aldatsekuan hasiko da.

## Gizakate dinamikoa egingo dute irailaren 7an Elorrion

Argi Gorriak taldeak deituriko mobilizazioa zerbitzu publikoen alde izango da eta Aldatsekuan hasiko da

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Zerbitzu publikoek hartu duten norabidea salatzeko, irailaren 7an gizakate dinamikoa egingo dute Elorrion. "Gizartea zahartzen eta zaintza beharrak handitzen dabilzan bitartean, gizarte zerbitzuak eta osasun publikoa gutxitzen ari dira", azaldu dute Argi Gorriak taldeko kideek. Deitzaileen berbetan, Elorrion ere argi eta garbi ikusten dira arazo horiek. Euren diotenez, alde batetik, Elorrion ezinbestekoa da eguneko zentro baten beharra. Bestetik,

Osakidetzak ez ditu medikuak eta pediatrik ordezkatzen. Eta, azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiak Elorrioko Laguntza Zentroan ipini gura dituen bizikidetzaren unitateekin, "ohe publikoak eta lanpostu publikoak suntsituko dira".

Beraz, hori guzti hori salatzeko eta zerbitzu publiko duinak aldarrikatzeko, Elorrioko hainbat biztanle, erakunde eta langilek gizakatera deitu dute. Gizakatea 19:00etan hasiko da, Aldatsekuan, eta Elorrioko Laguntza Zentroan amaituko da.

## Bisita gidatua Otxandion, Bittor Kapanaga hobeto ezagutzeko

Kapanagazaleen Taldeak antolaturiko ekimena domeka honetan izango da, goizean, eta parte hartzea doakoa da



Bittor Kapanaga. TXELU ANGOITIA

**OTXANDIO • J.D.**

Kapanagazaleen Taldeak Bittor Kapanaga euskaltzale, ikerlari eta idazleari buruzko bisita gidatua antolatu du domeka honetarako. Irteera udaletxean izango da eta bisitak ordu biko iraupena izango du, 11:00etatik 13:00etara. Parte hartzea doakoa da. Izena emateko, [euskerarenjatorria@gmail.com](mailto:euskerarenjatorria@gmail.com) helbidera idatzi edo 663 901 248 telefonora deitu daiteke.

Helburua Kapanagaren ekarpena "modu atseginean" ezagutzeko da. "Horretarako, herrian zehar ibilalditxo bat egingo dugu eta, amaieran, berak idatzitako kantaren bat abestuko dugu

denon artean. Kapanagaren bizitzaren gaineko pasarte batzuk ere azalduko ditugu", esan dute antolatzaileek. Kapanagaren

**Herritik ibilaldi bat egin ostean Kapanagak idatzitako kantaren bat abestuko dute**

ekarpena euskararen jatorriaren ikerketara, euskal kulturara nahiz herrigintzara hedatzen dira, besteak beste.

## Baserriko Uzta ekimenak 120 lagunetik gora batu ditu Atxondon

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Agroekologian oinarritzen diren etxaldeak eta herritarrak batzeko asmoz, EHKOlektiboak Baserriko Uzta ekimena egin zuen Atxondoko Biezko Baserrian, joan zen zapatuan. Ekimenen 120 lagunetik gora batu ziren. Biezko Baserriko Aner Garitagoitia eta Oihane Lekunberri "oso pozik" agertu dira ekimenak izandako harreagaraz. "Eguraldi eskasa egin zuen arren, oso pozik gaude

**EHKOlektiboko talde eragilean dagoen Garitagoitiak esperientzia positiboa izan dela esan du**

ekimenak izandako harreragaz. Jende mordera etorri zen, 120 lagun egon ginen bazkaltzen, eta bazkalosteko kontzertura jende gehiago etorri zen", azaldu du Aner Garitagoitiak.

Bestalde, EHKOlektiboko talde eragilean dagoen Garitagoitiak esperientzia positiboa izan dela esan du. "Badakigu denbora luzez ez dela berriro gurean antolatzea tokatuko, baserriko baserri ibiltzen gara eta. Baina aktiboki parte hartzen jarraituko dugu", gaineratu du.

# UDA KO 9. ARGAZKI LEHIAKETA

Igo zure argazkiak  
webgunera edo bidali  
**688635041** zenbakira  
irailaren 15era arte

Informazio gehiago  
[www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean

## 2 KATEGORIA, 4 SARI

### DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Smartbox-a.
- Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.

### DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Bluetooth aurikularrak Databost-en eskutik.
- Publikoaren saria: euskal produktuen otzara Errigoraren eskutik.

## "Taberna hau pernilagaitik izan da ezaguna eta hori mantendu egingo dugu"

Hiru hilabeteko etenaldiaren ondoren, Izurtzako Herriko Taberna berriro zabaldu dute



Udane Ramirez Azkarate izurtzarrak hartu du tabernaren ardura.

**IZURTZA • JOSEBA DERTEANO**

Izurtzako Herriko tabernak berriro atekak zabaldu zituen, joan zen barikuan, hiru hilabetez itxita egon ostean. Jende ugari batu zen inaugurazioan, tabernaren itxura berria

ikusteko, Udane Ramirez Azkarate arduradun berriari zorte ona opartzeko eta, bide batez, barra alderik alde betetzen zuten pintxoetariko bat dastatzeko. Jaietarako zabalik egotea lortu dute.

**Ilusioagaz ekin diozu erronkari?**

Bai, oso ilusionatuta nago. Irakasle ikasketak eginak ditut eta lan hura ere gustatzen zait, baina hamar urte daramatzat ostalaritzan eta gustura nabil. Orain dela urte ba-

tzuk beste taberna bat hartzeko aukera izan genuen, baina ez zen aurrera irten eta arantzatxo hori barruan sartuta nuen. Izurtzako tabernaren aukera irten zenean, lehiaketara aurkeztera animatu nintzen, familiak animatuta eta euren laguntzagaz.

**Ostalaritzan oraingo hau da negozio baten ardura guztia duzun lehenengo aldia. Erronka lez hartzen duzu?**

Benetan be, erronka! Atzetik lan handia dago. Izapideak egin, eskainiko dituzun produktuak aukeratu eta eskatu... Hamaika kontu. Baina ikasteko gogoz nago.

**Zer mantendu eta zer aldatu duzu?**

Heste beteak mantendu egingo ditugu. Jende guztiak esaten zidan "hori ez kendu, e?". Bada, ez, ohitura horri eutsiko diogu. Taberna hau pernilagaitik eta heste beteengaitik da ezaguna. Hori mantendu egingo dugu. Pernila, txorizoa, solomoa eta saltxitxoa ditugu. Gazta ere bai. Asko inguruko ekoizleen produktuak dira. Hortik aurrera, aste-buruetan txibierroak, patatak eta kroketak emango ditugu. Sukaldea eraberrituta dagoenean, janari elaboratuagoak eskaintzea da asmoa. Horrez gainera, urtean zehar ekimenak antolatu gura ditugu, herriko erdiguneari bizia emateko. **Helburua bete eta jaietarako zabal-tzea lortu duzue.**

Bai, epemuga hori geneukan ipinita. Jaietarako, plaza inguruan dagoen taberna bakarra zabalik egotea garrantzitsua zen. Eta guretzat ere aukera ona jendeak ezagutu gaitzan.

## Mallabiko frontenis txapelketak jardunaldi gutxiago du aurten, joan-etorriak errazteko

**MALLABIA • J.D.**

Mallabiko buruz buruko frontenis txapelketa nobedadeekin dator. Pandemiaren aurretik zortzi bat jardunaldi zituen, lartxo Durangaldetik kanpoko hainbat parte hartzaileentzat. Arazoak zituzten lana eta beste kontu batzuk txapelketagaz uz-

## Aldaketari eskerrak, Bilboko, Barakaldoko eta Bergarako frontenislariak ere animatu dira

tartzeko. Horregaitik, Mallabia Kirol Elkarteak antolatzaileek txapelketa hiru jardunalditan kontzentratzea erabaki dute: irailaren 22-23an, 29-30ean eta urriaren 7an. Aldaketa horri eskerrak, Durangaldeko frontenislarietaz gainera Bilbokoak, Barakaldokoak, Getxokoak eta Bergarakoak ere parte hartzera animatu direla azaldu dute antolatzaileek. Parte hartzea 16 lagunera mugatuta zegoen eta dagoeneko beterik dago. Baina baliteke izen-ematea zabaltzea, interesa erakusten dabiltzan denei tokia egiteko.

## National Geographic aldizkariako kazetari batek Mañariko Angurreta arte espazioa bisitatu du

Aldizkariako Bizkaiari buruz lantzen dabiren erreportaje bat dela-eta bisitatu du Mañariko gunea, abuztuan

**MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO**

Maiatzean inauguratu zutenetik hona, askotariko jendeak bisitatu du Angurreta espazio gunea. Tartean, aldizkari espezializatuen arreta ere erakarri du. Esaterako, National Geographic Traveller-entzatzat erreportajeak egiten dituen Daniel Stables kazetariak bisitatu zuen abuztuan, Urkiola Landa Garapenaren bitartekaritzari eskerrak.

Stables Bizkaia probintziari buruzko artikulu bat lantzen dabil eta abenduko alean argitaratuko dute. Testuinguru horretan joan da Angurretara eta Bizkaiko beste hainbat tokitara; Urkiola Parke Naturala ere bisitatu du. "Zoritxarrez", Angurreta ez da artikulu horren parte izango, Stablesen esa-

netan. Beste alde batetik bideratu du testua. Hala ere, Mañariko arte espazioa goraiatu du. "Txunditu egin ninduen. Paisaiaren erabilera zoragarria da, ondare industrial abangoardiagaz uztartzen duena.

**"Paisaiaren erabilera zoragarria da, ondare industrial abangoardiagaz uztartzen duena"**

Bene-benetan gomendatzen dut bisitatzeko", adierazi du.

Stablesek Lonely Planet, BBC Travel, The Times eta beste hainbat hedabidetarako ere lan egin du eta bere ibilerak 'danstabs' instagram kontuan jarraitu daitezke.



Ezkerretik hasita: Daniel Stables, Bilbao Turismoko Aitor Infante eta Landa Garapeneko Irene Zuazo.

## Mugarra Ateneok urriko ehiza lerroen zozketa egingo du datorren astean

**MAÑARIA • J.D.**

Mañariko eta Izurtzako Mugarra Ateneo Zinegetikoak Sai-bigain-Iturriotz pase lerroen zozketa egingo du. Urriko baimenen zozketa Mañariko Herriko tabernan izango da. Zozketa orokorra irailaren 8an egingo du, 12:00etan; bazkideei bideraturiko zozketa irailaren 12an izango da, 19:00etan, eta eskaerak egiteko azken eguna irailaren 7a. Eskaerak jaso ezik, eskatzen duen lehenengo ehiztariari emango dizkiote, hila- ren 19tik aurrera.

Eskaerak Izurtzako Herriko Tabernan eta Antonio Txiki okindegian batu eta utzi daitezke astelehenetik barikura.



EMAN IZENA  
**72,36€**



# DURANGO

# HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALA



**Ziurtagiri Ofiziala**

Deutsch · English · Euskara · Français

**MATRIKULA ZABALIK (on-line)**

Talde presentzialak eta erdipresentzialak

Irailaren 1etik 18ko 13:00ak arte (1.fasea) / Irailaren 18tik urriaren 6ko 13:00ak arte (2. fasea)

Zubiaurrea Kalea, 1, 48200 Durango  
015054aa@hezkuntza.net · 946 81 66 45  
[www.eoidurangoheo.hezkuntza.net](http://www.eoidurangoheo.hezkuntza.net)





## Anbotokideen txokoa

**Anbotokideok Angurreta harrobiko arte espazioa ezagutzeko bisita gidatua antolatuko dugu irailaren 17rako, Gerediaga elkarteagaz elkarlanean.**

Victor Arrizabalaga artista izango da bisita honetan argibideak emango dituena. Espazio horretan, Arrizabalagaren eta Tadanori Yamaguchi artista japoniarraren artelanak ikusgai daude.



\*Anbotokide bazara eta bisita gidatuan parte hartu gura baduzu, bidali emaila [astekaria@anboto.org](mailto:astekaria@anboto.org) helbidera. 20 lagunentzako lekua egongo da eta lehenengo idazten dutenen artean osatuko dugu zerrenda.

**Okm:**  
batzen gaituen distantzia

Egin zaituz Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!



## “BegIA aplikazioak itsutasun gehien sortzen duten gaixotasun nagusiak atzeman ditzake”

'Selfie' baten bitartez begietako gaixotasunak atzematen dituen aplikazioa sortu dute Igor Garcia iurretarrak eta Francisca Villanueva mexikarrak: BegIA

**IURRETA • A. BASAURI**

Fisikan eta Ingeniaritza Elektronikoan graduatua da Igor Garcia iurretarra eta Bioinformatika eta Bioestatistika masterra egiten dabil. Gainera, PhD ikaslea da, Konputazioko Teknologian. Francisca Villanueva Biokimikan doktoratua da eta biek elkarregaz BegIA izeneko aplikazioa sortu dute. 'Selfie' baten bitartez begiko zenbait gaixotasunen aurrediagnostikoa egiteko aukera ematen duen tresna sortu dute Kataluniako Oberta Unibertsitatak ikasle biek. Erretinopatia diabetikoa duen familiako kide baten esperientzia pertsonala dela eta jaiotako proiektua dela azaldu du Garciak.

**Zelan funtzionatzen du BegIA aplikazioak?**

Erabiltzaileak bere gailu mugikorretik argazki bat ateratzen du eta alde aurretik trebatutako adimen artifizialak diagnostikoa ematen du. Gaur egun, diagnostiko honek begietako hiru gaixotasun bereizten ditu: kataratak, glaukoma eta erretinopatia diabetikoa. Itsutasun gehien sortzen duten begietako hiru gaixotasun nagusiak atzeman ditzake. Era berean, begia osasuntsu dagoen ala ez erakusten du.

**Zein da BegIA aplikazioak dakarren berrikuntza nagusia?**

Dagoeneko badaude begiko patologia diagnostikatzeko irudiak analizatzen dituzten softwareak, Begi-hondo irudietan oinarritzen direnak. BegIA aplikazioak, oster,



Igor Garciak eta Francisca Villanuevak garatu dute BegIA proiektua.

pazienteak berak mugikorraren bitartez lortu ditzakeen aurretiko irudi sinpleak erabiltzen ditu, 'selfie'-ak.

**Diagnostiko goiztiar bat egiteko helburuagaz sorturiko aplikazioa da. Nori zuzenduta?**

Egoera ekonomiko edo geografikoagaitik diagnostiko azkar eta merkea lortu ezin duten herritar horiei zuzenduriko tresna da. Batez ere, osasun publiko ahula edo komunikabide txarrak dituzten munduko lurraldeetan bizi direnei zuzendurikoa. Desplazamenduak eta osasun pribatuko diagnostikoak oso garestiak izan daitezke zenbait lurraldetan, eta asko ez doaz medikuarenera gaixotasun arina dela uste badute.

**Epe laburrean erabilgarri egon daiteke BegIA? Zeintzuk pauso eman behar dira horretarako?**

Algoritmoa daukagu; hala ere, zenbat eta irudi gehiagoz trebatu, orduan eta hobeto. Datorren urte amaierarako osasun baimenak lortu eta aplikazioa bertsio pilotu batean martxan ipini ahal izatea espero dugu.

**'SpincOUC-eko 2023ko Eragin Sozialerako Ramon Molinas Saria' jaso zutenek ekainean.**

Bai. Sari honek gure proiekturako bultzada eta babesa suposatzen du. Finantziario gehiagoren aldeko apustua egiteko lehen urratsa da, enpresa eratu eta, azkenik, aplikazioa merkatura zabaltzeko.

## Dantzari Dantza parekidea dantzatu zuten, lehenengoz, Garaiko Santixau Egunean

**DURANGO • JONE GUENETXEA**

Santixau Egunean emakume bategi Dantzari Dantza dantzatu zuen herriko plazan, lehenengoz. Alazne Sarrigoitia garaitarrak, hain zuzen ere. San Inazio Egunean, bai, Garaiko hainbat emakume ezpata-dantzari legez irten dira plazara, baina egun seinatu hau geratzen zen erabateko parekidesuna lortzeko. "Ematen duenez, gaurkoa aldaketa sakonago baten hasiera baino ez da izan. Datorren urtera begira nesken zortziko talde bat hasi da ikasten", azaldu zuen Sarrigoitiak dantza egin berritan.



Alazne Sarrigoitia banangoa dantzatzeko unean.



Maumeko Auzolandegietako argazkia.

## Maumeko Erdi Aroko galtzadaren beste zati bat topatu dute Berrizen

Uztailean eman zuten aurkikuntza arkeologikoaren eta indusketa lanaren berri

**BERRIZ** • ARITZ MALDONADO

Muxikako (Bizkaia) Auzolandegietan bigarren urtez egin dituzte kontserbazio eta indusketa lanak, eta galtzadaren beste zati bat topatu dute, aurretik ezagutzen ez zena. Muxika eta Berriz artean daude galtzadatik kontserbatzen diren arrastoak, eta orain arte ezagutzen ez zirenak Berrizko lurretan topatu dituzte. "Bizkaiko galtzadarik zaharretarikoa da", azaldu du Roke Ojanguren proiektuko kideak. "Gerrikaitzeko sorrerako hiri gutunean, 1366koan, du lehenengo

aipamen idatzia. Lea Artibaiko eta Busturialdeko itsas portuak eta Araba lotzen dituen ibilbidea da, XIV-XV mendeetako, merkataritza fluxu handikoa", gaineratu du Ojangurenek. Gaur egun, Ardoaren eta arrainaren ibilbidea lez ezagutzen da bidea.

Auzolandegiak programak bigarren kanpaina izan du aurten. Hasieran, Olea burdinolaren kontserbazio lanak sustatzea zen helburuetariko bat, baina galtzadako lanei ekitea erabaki zuten orain urte bi. "Burdinola eraikin handia da eta lan handia

suposatuko luke, arriskutsuagoa izatez gainera", azaldu du Ojangurenek.

2023ko Auzolandegiak programa gauzatzeko, iazkoa baino laguntza handiagoa izan dute, eta horri eskerrak iraupena eta parte hartzaile kopurua bikoiztu da, Ojangurenen esanetan: aurten, 40 nerabek parte hartu dute proiektuan, Juan Carlos L. Quintana arkeologoaren gidaritzapean. Muxikako Udalak sustatu du proiektua, Gazteukeragaz lankidetzan. Uztailean eman zuten aurkikuntzaren berri.

## Zapatu Blain izena emateko epea, hilaren 4tik aurrera

Zaldibarko gazteak zapatuetan batuko dira aisialdia euskaraz gozatzeko; saioak irailaren 30ean hasiko dira

**ZALDIBAR** • A. M.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ume eta gazteek euskara erabiltzea ziurtatzeko helburuagaz ipini zuten martxan Zapatu Blai ekimena orain urte batzuk Zaldibarren. Gazteak zapatuetan batzen dira begiraleekin osaturiko lantaldeetan, lagun artean euskaraz egin eta errespetuzko hartu-emanetan oinarritutako den giro jatorrean aritzeko, 16:00etatik 19:00etara; saioak hamabostean behin izaten dira.

Irailaren 30ean hasi eta ekainaren 8ra arte iraungo du udal

programak aurten. Izena emateko epea irailaren 4an zabalduko da, astelehenagaz, eta irailaren 11n amaitu. Zaldibarko udaletxean bertan eman daiteke izena eta 40 euro ordaindu beharko dira. "Zailtasun ekonomikoak" dituzten familiek laguntzak eskatu ditzaketela jakinarazi dute udaletik. Bestalde, Gaztelekua ere martxan ipiniko dela iragarri du Zaldibarko Udalak; irailaren 15ean zabalduko ditu ateak, eta gazteak uztailearen erdialdera arteko zapatu eta domeketan egon ahal izango dira bertan.



Zaldibarko gaztelekua.

# Ostalaritza gida

**Abadiño**

**ABARKETERUENA**  
Iturritxo, 6 - Txanpota plaza, ABADIÑO  
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburueto menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

**Iurreta**

**GAUARGI**  
Dantzari 4 behea, IURRETA  
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

**Zornotza**

**XIBERU**  
Zezilia Gallartzagoitia, 9  
Tel.: 946181758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea ostegunero eta afariak astebururo. Giro alaia eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.



# Bidali argazkiak 688 635 041 zenbakira irailaren 15a baino lehenago eta parte hartu ANBOTOren argazki lehiaketan

Smartbox bat, Databostek emandako aurikularrak, egonaldi bat Garaiko landetxean eta Errigoraren otzara bat dira sariak



lazko irabazlea, 'Kapadokya' (Gemma Uribelarrea).

## DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bederatzigarren urtez, martxan da ANBOTOren argazki lehiaketa, irakurleen argazkilari senari bide eman gura dion txapelketa. Aurten ere arlo bitan aurkeztu daitezke argazkiak: eskualdeko argazkirik onena eta eskualdetik kanpoko argazkirik onena. Parte hartu gura dutenek 688 635 041 telefono zenbakira bidali behar dituzte argazkiak, edo [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean ipini, irailaren 15a baino lehenago.

Lau irabazle egongo dira lehiaketan. Epaimahaiak irabazle bi aukeratuko ditu, eta publikoak beste bi. Publikoaren saria webgunean egindako bozketa baten bitartez erabakiko da, irailaren 16tik 22ra. Beraz, epe horretan

botorik gehien jasotzen dituzten argazkiek jasoko dute publikoaren saria.

Sariak honako hauek izango dira: Smartbox bat eta Databostek emandako bluetooth aurikularrak (epaimahaiaren saria) eta egonaldi bat Garaiko landetxean eta Errigoraren otzara bat (publikoaren saria).

## ANBOTOren argazki lehiaketako irabazleei dagokienez, lau irabazle egongo dira

### Lehiaketako oinarriak

Lehiaketako oinarriari dagokienez, parte hartzaile bakoitzak gehienez lau argazki bidali ahal izango ditu, kategoria bakoitzeko bi. ANBOTOren argazki lehiaketan parte hartzeko aurkezten diren argazkiak aurtengo udakoak zein beste edozein udakoak izan daitezke.

## Durangaldea asteen

### Berrizko belodromoa estaltzeko proiektua idazteak 273.788 euroko kostua izango du

**BERRIZ** | Berrizko Marino Lejarreta belodromoa estaltzeko planak aurrera jarraitzen du. Dagoeneko Durangaldeko Mankomunitateak esleitu du proiektua eta Artabe Arquitectos enpresak izango du proiektua idazteko ardura. Lanak 273.788 euroko kostua du eta 13 hilabetetan eginda egon behar da. Horren ondoren, obra lizitazio publikora aterako dute.

### Zornotzarren artean euskarazko sareak osatu eta bizkaiera lantzeko ikastaroa

**ZORNOTZA** | Zornotzako Udalak bizkaiera lantzeko ikastaroa antolatu du. Euskara Zerbitzuak lehen aldiz antolatu du ekimena eta helburua euskaldun zaharrei zein euskaldun berriei bizkaiera erabiltzera animatzea eta zornotzarren artean euskarazko sareak osatzea da. Ikastaroa urrian hasiko da eta ordu eta erdiko zazpi saioz osatuta egongo da. Taldea bi asterik behin batuko da, martitzenetan. Izena irailaren 29ra arte eman ahal izango da.



### 50 bat abadiñarrek igo zuten San Rokeren irudia Andra Mariko ermitatik Urkiolara errotatibean, zapatuan

**ABADIÑO** | Joan zen zapatuan, abuztuak 26, abadiñarrek errotatiba eguna ospatu zuten Urkiolan. Ohitura den lez, San Rokeren irudia Andra Mariko ermitatik Urkiolara eraman zuten 50 bat abadiñarrek. Han, hainbat herritarrek eta Abadiño dantzariak harrera egin zieten Urkiolara errotatiban igotakoiei.

Egun berean, gisatu herrikoia eta erromeria izan zituzten gauean, Abadiño probalekuan. Aldez aurretik udalak jakinarazi zuen legez, euro bateko tiket sinbolikoa erostea beharrezkoa zen gisatua jateko. Txarteekin baturiko dirua Elikagaien Bankuari eman zioten. 85 euro jaso zituzten.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



# ELORRIO

## FERIXA NAUSIKOAK 2023

IRAILAK 2-10



**688 86 52 94**  
Salatzeko eta informazioa jasotzeko telefonoa

**ERASO MATXISTA,  
TRANSFOBO ETA  
HOMOFOBORIK EZ**

**SARETU,  
ANTOLATU,  
ELKAR  
ZAINDU**



Elorrioko udala

## Elorrioko jaiak 2023

## Irailak 1, barikua

**15:00** Bazkaria elizpean.**17:00** Miseriaren adarrak EKIDA. Bertso ikuskizuna. Plazan.**18:00-21:00** Indarkeria matxistatik gabeko jaiak: Informazio gunea. Plazan.**20:00** Txosnagunearen irekiera.**22:00** Kontzertuak: Iskanbila eta Skabidean. Txosnagunean.**00:00** Denso eta Malakias. Gaztetxean.**00:30** DJ Javi P3z. Ateneoan.

## Irailak 2, zapatua

**11:30-14:00 / 16:30-19:00** Haur parkeak**13:00** Bitsaren jaia. Esteibarlanda.**14:30** Elkartasun bazkaria. Txosnagunean.**18:00** Elorrioko buruhandiak. Plazan.**18:15** Sugarri Fanfarrea, kalejira. Plazan.**19:00** Erromeria: Gauargi taldea. Plazan.**20:00** Txupinazoa eta pregoia: Berrio-Otxoa Orfeoia eta Erdella Mendizale Taldea. Plazan.**21:00** Fitoskins, Txerrikumeak eta Galazota. Gaztetxean.**22:15** Suzko zezena. Plazan.**22:30** Danborrada. Plazan.**23:00** Lebond (bertsioak). Urarkan.**00:00** DJ Pary&Tiza. Txosnagunean.

## Irailak 3, domeka

**10:00** Abere, nekazaritza eta artisau azoka.**Goizean txistularien kalejira.** Antolatzailea: Elorrioko txistulariak**11:30** Kalejira. El Despiste fanfarrea**13:00** Elene eta Maddi. Txosnagunean.**18:00** Umeen Danborrada. Plazan.**19:00** Pilota eta pala partiduak. Kiroldegian. Antolatzailea: Hori-hori pilota kluba.**19:30** Xabi Aburruzagaren kontzertua. Plazan.**20:00** Afariak Anbotoperen eskutik. Txosnagunean.**22:15** Suzko zezena. Plazan.**22:30** Correfoc Drakonia. Ibiltaria.

## Irailak 4, astelehena

**12:00-14:00 / 17:00-20:00** Txu-txu tren**14:00** Kuadrillen arteko bazkaria eta tortilla lehiaketa. Aldatsekuan. \*Mahai eta aulki banaketa goizeko 9etatik aurrera**15:30** Sound disko festa. Aldatsekuan.**18:00** Kuadrillen jaitsiera.**18:00** Disko Larima, Urko eta Urtzagaz. Plazan.**18:30** 16 urtetik gorakoek kuadrillen arteko jolasak. Plazan.**19:00** Rumbo a Tijuana. Mariatxiak. Urarkan.**22:00** Zutik elektrotzaranga. Txosnagunean.**22:15** Suzko zezena. Plazan.**22:30** Makro Disko Festa Maximus. Plazan.

## Irailak 5, martitena

11:30-14:00/16:30-19:00 Haur parkeak

**17:00** Gazte Uhartea: Looping Bike (bizikleta birakariak) eta Jumping (ohe elastikoak). Ganondo parkean.**17:00** Umeen olimpiadak. Txosnagunean.**17:30** Minibasket txapelketa. Kiroldegian. Antolatzailea: Saskibaloia EKT.**18:00** Elorrioko buruhandiak. Plazan.**18:00** Koldo Madariaga II. memorialeko gizonen txapelketa. Antolatzailea: C.D. Elorrio.**19:00** Mireia Miracle Company (clown, kale antzerkia). Plazan.

## Irailak 6, eguaztena

**16:30** Umeentzako jolasak. Plazan. Antolatzailea: Txintxirri Ikastola**17:00** Elorrio-Durango-Ermua txapelketa. Antolatzailea: Eskubaloia EKT. Kiroldegian.**17:00** Mus txapelketa herrikoia. Txosnagunean.**18:00** Elorrioko buruhandiak. Plazan.**18:00** Txokolatada. Plazan. Antolatzailea: Txintxirri Ikastola.**18:00** Elorrio - Athletic - Eibar (emakumezkoen txapelketa). Antolatzailea: CD Elorrio.**19:00** Eidabe "Gora bihotzak" umeentzako animazioa. Plazan.

## Irailak 7, eguena

**18:00** Aretoko futbola (EMAKUMEAK). Txapelketa irekia. Antolatzailea: Elorrioko Buskantza FKE. Kiroldegian.**18:00** Kirolo inklusiboa. Antolatzailea: C.D. Elorrio. Elizalden.**18:00** Herri kirolak. Txosnagunean.**20:00** Kai Nakai. Plazan.**22:00** Anari. Gaztetxean.

## Irailak 8, barikua

**09:30** Elorrio zirkularra (Plaza-San Roke-San Jose-autokarabana gunea-Arriarte-San Agustin-Kurutxondo-Plaza-Kiroldegia-Txanberri-Angio- Gazeta-Gerbilla-Aldape-San Juan-Zenita-Arriñeta-Lekeriketa-Kurutxondo-Plaza). Antolatzailea: Durangaldeko Bizidun Nagusien Elkarte**11:30** Hildako jubilatuen omenezko meza. Sortzez Garbiaren Basilika.**13:00** Kopaua Elorrioko jubilatuentzat. Aldatsekuan.**16:00** Gazte Uhartea: Zintzilik emozioen laborategia.**18:00** Elorrioko buruhandiak. Plazan.**18:00** Txitxarrillo Trio Serenade, jubilatuentzako dantza. Aldatsekuan.**18:00** Aretoko futbola - Elorrio + talde bi, gizonen txapelketa. Antolatzailea: Elorrioko Buskantza FKE.**19:00** Hortzmuga "Agurea, urpekaria eta itsasoa", kale-antzerkia. Urarka.**Pintxo-potea** Atxondoko Harrera Herriaren eskutik.**20:00** Andoni Martínez Barañano "Homenaje a Luis Mariano" kontzertu lirikoa. Arriolan.**21:00** LVII. idi proba txapelketa. Probalekuan.**22:00** Kontzertua: Toc eta Esne beltza. Plazan. Antolatzailea: Txosnen Batzordea**22:15** Suzko zezena. Plazan.**00:00** Stepi eta lagunak. Gaztetxean.

## Irailak 9, zapatua

**08:00** Aldatsekua Sukalki eguna. Antolatzailea: Iturizoro elkarteartea. Zatoz moxorroa jantzita!**11:30-14:00/16:30-19:00** Haur parkeak eta txu-txu tren.**12:30** Fanfarrixo Sukalkia animatzen. Aldatsekuan.**13:00** Bitsaren jaia. Esteibarlanda.**16:00** Andoni Ollokiegi, kontzertua. Aldatsekuan.**18:00** Txokolatada. Laguntzailea: La Esperanza nagusien elkartea. Plazan.**18:00** Karrozen jaitsiera. Aldatsekua.**18:00** Disko Muzio's. Plazan.**21:00** LVII. Idi proba txapelketa. Probalekuan.**22:15** Suzko zezena. Plazan.**23:00** DJ Gorka Pérez. Plazan.**23:00** Golden Apple Quartet "Gran selección de fiestas 2023". Urarka.**23:00** Gozue eta Etxeko DJak. Gaztetxean.**00:00** Euskal dub etxea. Txosnagunean.

## Irailak 10, domeka

**12:00** Elorrioko kolore eta zapoak. Antolatzailea: Kainabera GKE. Kanpokale.**11:30-14:00/16:30-19:00** Haur parkeak.**13:00** Herri kirola: Alex Txikon, Hodei Ezpeleta, Julen Mendieta eta Bihurri aizkoran, Karlos Aretxabaleta Iparraldeko jokoetan eta Ane Zinkunegi harri jasotzen. Plazan.**18:00** Bertso saioa: Julio Soto, Alaia Martin, Iruri Altzerreka eta Igor Elortza. Gai jartzailea: Maite Berriozabal. Aldatsekuan.**19:30** Esperanza Mara & Colectivo Vella Escola "Opera Break" dantza eta musika. Plazan.

## Irailak 11, astelehena

**21:00** LVII. idi proba txapelketa. Probalekuan.

# Erdella Mendi Taldeak eta Berrio-Otxoa Abesbatzak txupinazoa jaurtita hasiko dituzte Elorrioko Ferixa Nausiko jaiak, bihar

Erasoei aurre egiteko baliabideen artean telefono zenbaki bat ipini dute, behar izanez gero deitzeko: 688 865 294.

## JAIK • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bihar hasiko dituzte Elorrioko Ferixa Nausikoak. Dena prest daukate txupinazoa jaurtita aste biko jaiez gozatzeko. Aurten 50 urte betetzen dituzten herriko elkarte bietako kideek jaurtiko dute txupinazoa: Erdella Mendi Taldeko eta Berrio-Otxoa Orfeoiko kideek. "Guretzat ohorea da jaiak euren eskutik hastea", adierazi du Itsaso Basauri jaietako zinegotziak. Era berean, jaietako egitarauari dagokionez, urtero legez egitarau oparoa antolatu dute Elorrioren. "Adin eta gustu guztiak asetzeko ahalegina egin dugu", esan du Basaurik. Ohiko ekintzak eta baita tradizioz egiten diren beste hainbat ere egongo dira. Eta, zelan ez, musika eta kontzertuek ere garrantzi berezia izango dute: Xabi Aburruzaga, Kai Nakai eta Esne Beltza izango dira oholtzan, besteak beste. Bestalde, Gaztetxean Anari izango da, irailaren 7an.

Aurten, nerabeei egokituriko gune bat egongo dela Ganondo parkean, eta etxeko txikienez ere parkea egongo da, hiru egunez, Iñaki Larrañagak azaldu duenez.

Horrez gainera, Julene Lazkano Elorrioko alkateak gogorazi du jaiak "denenak eta denentzat" direla. "Ez dugu eraso matxista, homo-

fobiko eta transfororik onartuko; ezta beste motatako erasorik ere", amaitu du, irmo.

**Xabi Aburruzaga,  
Kai Nakai, Esne Beltza  
eta Anari izango dira  
Elorrioko jaietan**

**Aurten nerabeentzako  
gune bat egongo da  
Ganondon, eta txikienek  
hiru parke izango dituzte**

## Informazio gunea

Prebentzioaz gainera, erasoei aurre egiteko baliabideak ipini ditu udalak. Esaterako, telefono zenbaki bat egongo da, behar izanez gero bertara deitzeko: 688 865 294.

Jai parekideak lortzeko bidean, informazio gune bat ipiniko dute gaur (irailak 1), Elorrioko plazan, 18:00etatik 21:00etara. Elorrioko Udaletik jakinarazi dutenez, erasoen kontra egiteko materiala eta informazioa egongo dira herriarren eskura. Gainera, udaleko



Mozorro Eguneko irudia.

Berdintasun Sailak kartelak, kalkamoniak eta bestelakoak banatuko ditu. Horrez gainera, protokoloa ere landu dute, mugimendu feministagaz batera.

"Gizonezko guztiei, adinekoei, gazteei zein nerabeei eskatzen diegu ez daitezela izan emakumeen,

nesken eta neskatoen aurkako erasoen partaide. Gogorarazten dugu besteak onartzen ez dituen sexu jokabideak erasoak direla. Tematzea, ukituak eta jazarpena ere indarkeria matxistaren barruan kokatzen dira", azaldu dute Elorrioko Udaletik.

Aurtengo jaietan, zaintza lanean aritzen diren pertsona guztien arreta ipiniko duela jakinarazi du udalak. "Hain zuzen ere, etengabe zaintzen, sendatzen, babesten, garbitzen, laztantzen, elikatzen eta animatzen ibiltzen diren pertsona horien gain."

**eroan**  
DURANGALDEKO EDUKIONTZI ZERBITZUA  
94 682 03 90  
contenedores **eroan** s.l.  
Lekeriketa Auzoa, s/n - Apartado 88  
48230 - Tel.: 946 820 390  
eroan@eroan.es

Elizburu, 46-48  
Tel.: 94 682 10 79  
ELORRIO (Bizkaia)  
**ALBAÑILERIA**  
**KURUTZONDO** s.l.

**BERRIAIR**  
AIRE COMPRIMIDO  
HAUEN SALMENTA, KONPONKETA  
ETA MANTENTZEA:  
- KONPRESOREAK - LEHORGAILUAK  
- INSTALAZIO PNEUMATIKOAK  
- AIREAREN TRATAMENDUA  
- HOTZ INDUSTRIALA  
ZERBITZU OFIZIALA: **BOGE**  
San Agustin, 1 Pol. Ind. - 5. moduloa  
48230 Elorrio (Bizkaia)  
Tel.: 946 820 666  
e-mail: berriair@berriair.com

**AZKARRETA**  
- EXCAVACIONES -  
T. 94 658 28 38 - Fax. 94 623 16 77 - info@azkarreta.com  
www.azkarreta.com

**CUMENOR**  
ERAIKUNTZA-ENPRESA  
• Mota guztietako obrak (Igeltserotza, egiturak eta proiektuak)  
• Estalki eta fatxaden itxierak.  
• Estalkien birgaikuntza eta mantentze-lanak.  
Enpresa, partikular eta jabeen erkidegoentzat zuzenduta  
ESKATU INFORMAZIOA ETA  
AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE  
Ibaizabal k/ 1- 48260 Elorrio Bizkaia  
info@cumenor.com - www.cumenor.com  
Tel.: 946 215 677

Certified **First**  
**AUTOGAIN**  
TALLERES  
**TXAPA eta PINTURA**  
**PNEUMATIKOAK**  
San Agustin indus. 57, 6 nabea.  
ELORRIO (Bizkaia)  
Tel.: 946 056 732 / Mug.: 679 174 367  
autogain@hotmail.es

# “50 urteren ondoren, Erdella hemen dago eta ea beste horrenbeste urtean jarraitzen duen”

Elorrioko Erdella Mendi Taldeak 50 urte bete ditu aurten. Jaietan txupinazoa jaurtiko duten taldeetariko bat izango dira



Edu De La Cruz eta Alain Bravo.

## ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Uztailaren 2an 50 urte bete ziren Erdella Mendi Taldea sortu zenetik. Harrezkero, taldeak mendiko hainbat ekintza egin du eta elorriarrei zein elorriotik kanpoko bazkideentzat jardura mordo antolatu dute. Beste horrenbeste urtean mendizaletasuna bultzatzen jarraitzea dute helburu, baina, horren aurretik, ospakizunerako tarte bat hartuko dute Erdellakoek. Irailaren 2an, jaietako txupinazoa jaurtiko dute orfeoikoekin batera.

**Aurten herriko jaietara hasiera emango dien txupina jaurtiko duzue. Zer suposatzen du horrek zuentzat?**

**Alain Bravo:** Sari bat lez hartu dugu. Hainbeste denboran Elorriorentzat eta elorriarrentzat ekintzak antolatzen ibili eta gero, gutaz gogoratu dira eta aukera hau ematea oso polita da. Maiatzean urteurren jaia ospatu genuen eta ia 200 lagunek parte hartu genuen bertan. Herrian errotuta dagoen taldea da Erdella, baina baliteke oraindino ezagutzen ez duen jende bat egotea. Beraz, jaietako aukera polita izan daiteke elkartearen ezagutarazteko.

**Taldeak 50 urte bete ditu. Erraz esaten da.**

**Edu De La Cruz:** Erraz esaten da, bai, baina 50 urtez egon egin behar da

eta ekintzak antolatu egin behar dira. Baina, bai, 50 urteren ondoren Erdella hemen dago eta ea beste horrenbeste urtean jarraitzen duen taldeak. Gainera, gure helburu nagusietariko bat taldera jende berria batzea da. Taldera batzen den jendeak haize berria ekartzen du beti, ideia berriak. Beraz, horiek guztiak zabalik dituzte gure ateak.

**Hainbeste denboran Elorriorentzat eta elorriarrentzat ekintzak antolatzen ibili eta gero, gutaz gogoratzea oso polita da**

**Ferixa Nausikoekin, txupinazoz eta irailean urtero egiten duzuen Elorrioko Biragaz ondo beteta duzue iraila.**

**E. D. L. C.:** Bai, eta aurten oraindino beteago izango dugu. Urtero Elorrioko Bira antolatzen dugu iraileko azkenengo domekarako, eta aurten mendiko lasterketa ere antolatu dugu aurreko egunerako.

**A.B.:** Lasterketa hau edozeinentzat da, baina, batez ere, gazteei zuzenduta dago. Honegaz, gazteak mendizaletasunera eta Erdellara hurbiltzea gura dugu.

**Zer dela eta erabaki duzue mendi lasterketa bat antolatzea?**

**E. D. L. C.:** Herriko gazte batzuk etorri zitzaizkigun eta proposamen bat zutela esan ziguten. Elorrioko mendi lasterketa bat egin geneza-

TXINTXIRRI  
**ELORRIOKO IKASTOLA**

San Pio, 3  
ELORRIO  
Tel.: 946 582 261  
elorrio@ikastola.eus

**EUSKARA AHOAN, ONDO IBILI FERIXA NAUSIKOETAN!**

[www.elorriokoikastola.eus](http://www.elorriokoikastola.eus)

Instalaciones  
**Altuna S.L.**

BEROKUNTZA-INSTALAZIOAK: GASA, GASOLIOA ETA EGURRA  
ITURGINTZA - EGUZKI PLAKAK - GEOTERMIA INSTALAZIOAK  
INPERMEABILIZAZIOAK - GAS PROPANOKO INSTALAZIOAK

San Juan, 4 - Tel.: 946 820 062  
Mug.: 657 796 590  
Elorrio

**berriozabaleta**

• Iturgintza • Berokuntza • Gasa

INSTALATZAILE BAIMENDUA jose miguel acedo  
Elorrio • [berriozabaleta@yahoo.es](mailto:berriozabaleta@yahoo.es) • Tel.: 609 381 887

**Elect. FDEZ**  
INSTALAKUNTZAK ETA SISTEMAK

Telekomunikazioa - Elektrizitatea -  
Elektronika - Mantenua

Ibarra kalea, 5 behe - Elorrio  
Tel.: 946 582 943 / 685 750 401

**Tanger**  
J A T E T X E A

Ibaikua, 8. ELORRIO  
Tel.: 946 820 052

€€  
**ETXEANDIA**  
Administración de Fincas

Nazaret Etxeandia Berrio  
Kolegiatu zk.º 37.046

946 202 673  
[etxeandia\\_admon@yahoo.es](mailto:etxeandia_admon@yahoo.es)  
Erreka kale, 17 behe 2  
ELORRIO (Bizkaia)



keela esan ziguten eta antolatzeke prest geundela esan genien, baina beti ere euren laguntzagaz. Baietz esan ziguten eta hor daude, lan asko egiten.

**A.B.:** Gogotsu dabilza eta hori pozgarria da. Lehen esan dugun lez, jende berriak indartu egiten du taldea eta hori garrantzitsua da. Iraileko azken asteburu hori ekimenez beterikoa izango dela aurreikusten dugu. Familiakoekin asteburu ederra pasatzeko aukera ezin hobea egongo da Elorrion. Jendea zapatuan etortzea gura dugu, eta mendi lasterketan parte hartu eta gero eguna bertan pasatzea eta bertako komertzio eta tabernetan ibiltzea. Eta domekan familian Elorrioko Bira lasai-lasai egitea. Ziur gaude giro paregabea izango dugula herrian.

**Taldearen helburuak aldatu egin dira hasierako urteetatik hona?**

**A.B.:** Helburuak berberak dira, baina ohiturak eta ekintzak aldatzen doaz. Esaterako, ni orain 20 bat urte sartu nintzen Erdellan. Sasoi hartan, aukera bakarra nuen

Pirinioetara joateko: Erdellagaz joatea. Ez neukan kotxerik edo furgoneterik joateko. Baina orain gauzak asko aldatuta daude. Gazte askok 18 urteaz erosten dute furgoneta eta horrek aukera ematen die euren asteburuak antolatzeke. Orduan, guri ere egoera horretara egokitzea tokatzen zaigu.

**Zelan egokitu zarete horretara?**

**A.B.:** Lehen, asteburu osoko ekintza dezente egiten genuen. Baina denboragaz ikusi dugu jendeak errazago ematen duela izena egun bakarreko ekintzetarako, asteburu osokoetarako baino. Beraz, orain egun bakarreko ekintza gehiago antolatzen gabilza. Mendi lasterketak antolatzea ere garai berrietara egokitzeko beste modu bat da. Gaur egun, jende gazte asko dabil mendi lasterketen munduan eta horiek antolatzea ere garai berrietara egokitzea da.

**Erdellak elorriarrak behar ditu, baina Elorriok ere behar du Erdella.**

**A.B.:** Jakina. Guk behar beharrezko ditugu elorriarrak, eta egun Elorrioko herritarren ia %10 dira

gure bazkide. Hau da, Elorrioko ia 1.000 bazkide ditugu. Baita Elorriotik kanpoko batzuk ere. Zifra horiek oso onak dira mendi talde baterako eta oso pozik gaude alde horretatik. Baina, jakina, bazkide berri gehiagorengana heltzea da gure asmoa.

**Oraindino Erdellako bazkide ez den bati zer esango zenioke bazkide egiteko?**

**A.B.:** Taldeko giroa ezin hobea dela, giro aparta daukagula denon artean eta oso ekintza politak egiten ditugula. Familia giroa dugu eta, gainera, ez gara profesionalak. Maila guztietara egokitzen gara eta gure ekintzak moldatu egiten ditugu, jendearen arabera. Beraz, beldurrik ez izateko eta gure taldera batzeko deia egiten diegu herritarrei.

**Beste ezer gehitu gura duzue?**

**E. D. L. C.:** Mendi lasterketarako bolutarioak behar ditugula iraileko asteburu horretarako; bai mendi lasterketarako eta baita Birarako ere. Eta, jakina, laguntzen digutenek euren saritxoia izango dute.



**AUTOS ELORRIO 2014 S.L.**  
MEKANIKA OROKORRA  
AUKERAKO IBILGAILUEN SALMENTA  
KARROZERIAK  
Tel. 94 658 30 60  
Pol. Betsaide, 9  
48230 ELORRIO

zubi  
ate  
autobusak  
649 403 770  
info@zubi.ate.es

ARTEA SOINEAN  
658756522  
agurtzane  
ezagun

Calderería **EZAGUN** Galdaragintza  
Forjaketa artistikoa  
Enpresen mantentze lanak  
Lanak herdoilgaitzean  
Errementaritza, oro har  
Oidor Berriozabalbeitia Pab 10  
Elorrio  
Tel.: 946 584 547  
ezagunsl@ezagunsl.e.telefonica.net

**SOLOZABAL**  
autoeskolak  
• TEORIKOA ATERATZEKO  
IKASTARO TRINKOAK  
Atera ezazu teorikoa 5 egunetan.  
%99k gaintzen dute  
• CAP ikastaroak profesionalentzat  
• Teoriko orokorra euskaraz ONLINE  
HEMEN GAUDE:  
Urarka kalea, 16 • Tel.: 946 583 441 • ELORRIO

elka 20  
arkitektura  
Silvia Urrutxi  
Arkarazo  
Errekakale 20, 2. A - Elorrio  
Tel.: 946 231 847  
699 356 607  
649 955 778

**Argiñeta**  
HIRIGINTZA ETA  
INMOBILIARIA BULEGOA  
Zure konfiantzazko  
inmobiliaria  
jai zoriontsuak izan!  
Urarka, 1 - 48230 Elorrio  
Tel.: 946 820 041  
Faxa: 946 231 630  
argineta@euskalnet.net  
www.argineta.net

**HOTEL ELORRIO**  
JATETXEA  
RESTAURANTE  
San Agustín auzoa  
48230 Elorrio (BIZKAIA)  
Tel. 94 623 15 55  
info@hotelelorrio.com  
www.hotelelorrio.com

**SOLDAKETAK ELORRIO S.L.**  
Egitura metalikoak • Enpresen mantenua •  
Altzairu erdogaitza • Forja artistikoa •  
Soldaketa bereziak  
Berriz Etor. 5, 14PK - 48230 ELORRIO Tel.: 671 650 143  
soldaketakelorrrio@yahoo.es 656 770 339

**ELORRIXON BIZI,  
ELORRIXON EROSI.  
DENOK IRABAZI!!!**  
Ondo pasa jaietan!  
ELORRIKO MERKATARIEN ELKARTEA  
ema bertan gaude  
QR code



## “Abestea arimarentzat terapia egiteko modu zoragarri bat da”

Elorriko Berrio-Otxoa abesbatzak botako du txupinazoa. Orfeoiak 24 kide ditu momentu honetan

**ELORRIO • JONE GUENETXEA**

**Susana Rupérez Díez Elorriko Berrio-Otxoa Abesbatzako kidea da. Erdella Mendi Taldeagaz batera txupinazoa jaurtiko dute bihar. Elkarrekin 50 urte egin ditu aurten, eta ibilbide hori gogora ekarriko dute jaietan.**

**Zelan hartu duzue txupinazoa jaurtitzeko albistea?**

Itxaso Basauri zinegotziak deitu zigun eta esan zigun jai batzordean erabaki hori hartu zutela. Kontua da udaleko Kultur Sailean proposa-

mena egin genuela elkarrekin 50. urtea dela eta egitarau berezi bat antolatzeko. Erdellak ere 50 urte bete ditu eta elkarrekin botako dugu txupinazoa. Ohore handia da guretzat. Ez da hainbeste txupina botatzeagaitik, 50 urte egiteagaitik baino. Bizkaiko eta Euskal Herriko beste hainbat abesbatzak ezin dute berdina esan. Koruak zahartzen ari dira eta intentsitate handia galdu dugu. Abesbatzen mugimenduak indarra galdu du. Erdi profesionalak diren abesbatzak geratzen dira. Baina gurearen moduko abesbatza

2024ko Elkartasun-Plana

# ELKARTASUNA!

- ✓ Zuk, proposatu.
- ✓ Guk entzun egingo dizugu.
- ✓ Eta, aukeratu, elkarrekin.



Bezera bazara, aukeratu Kausak:



GKE bazara, aurkeztu zure proiektua:



 **EROSKI**  
zurekin

amateurra, fundizioko langile bat zein etxean lan egiten duen beste pertsona bat batzen dituen? Oso gutxi geratzen gara.

#### Noiz hasi zinen orfeoian abesten?

Orain dela 17 urte hasi nintzen eta gazteenetarikoa naiz. Fitxaje onak ditugu. Sasoi hartan zuzendaritzako eta koruko abeslari baten oso laguna nintzen eta animatzeko esan zidaten, banekiela musika apur bat.

#### Merezi du parte hartzea, ezta?

Zoragarria da. Urte askoan egin dudana ekintzarik onena da. Lagun

ko modu zoragarri bat da. Musika ihesbide bat da. Musikoterapiarena uste dut egia dela. Pertsona nagusiak elikatu egiten ditu eta memoria estimulatzen du, abestiak ikasi egin behar dira eta. Ekintza ederra dela uste dut.

#### Non entseatzen duzue?

Udalak utzitako lokal batean bazen gara, Aldatsekuan. Azkenengo solairua guretzat daukagu. Egun batean emakumeak batzen gara, beste batean gizonak, egun batean edo bitan. Gure kontzertuen agenda zenbat eta beteago egon, orduan eta entsegu gehiago egiten dugu.

#### Zein da lan gehien duzuen sasoi?

Udaberrirako kontzerturen bat prestatzen dugu. Berrio-Otxoa Egunean kontzertu garrantzitsu bat egiten dugu. Udan atseden hartzen dugu eta urte batzuetan Errebonbiloetan txistulariekin abestu izan dugu. Santa Zezilia bueltan kontzertua egiten dugu eta bi edo hiru urterik behin kanpoko koruren batez kolaboratzen dugu. Eta, jakina, Gabonetan ere abesten dugu. Kontzertu inportante bat egiten dugu, edo, bestela, kalejira. Azken urteetan fanfarreagaz kolaboratzen ari gara kalejira egiten.

#### Zenbat pertsona zabiltzate Berrio-Otxoa abesbatzan?

24 pertsonak parte hartzen dugu abesbatzan.

#### Zer esango zenioke apuntatzeko zalantzan dagoenari?

Etorri dadila eta probatu dezala. Hasieran kostatu egiten da, baina egun pare bat daramatzazunean ez duzu hemendik alde egingo, jendea oso atsegina delako.



**Entseguetan barre asko egiten dugu. Lan ere egiten dugu, eta kasu askotan astean birritan entseatzen dugu**

talde bat gara. Ondo konpontzen gara eta elkarlanean aritzeko gai gara.

#### Abesbatza batean parte hartzea ez da abestea bakarrik.

Konpartitza ere bada. Entseguetan barre asko egiten dugu. Lan ere egiten dugu, kasu askotan astean birritan entseatzen dugu. Lan egin behar da eta umorez daramagu. Arraroa da abesbatzan hasten denak uztea. Bakoitzak bere lekua aurkitzen du. Oso harrera ona egiten dugu, gutxi gara eta.

#### Zuri zer ematen dizu abesbatzak?

Abestea arimarentzat terapia egite-



**Urkilan**

Urkizuaran, 39  
48230 ELORRIO / Bizkaia  
Tel.: 946 820 237 / 617 636 889  
Fax.: 946 583 411  
[urkilan@urkilan.net](mailto:urkilan@urkilan.net)

**ARKITEKSAN**  
ARKITEKTURA ESTUDIO TEKNIKOA  
EIT/TE AZTERKETA 360€TIK AURRERA!

WWW.ARKITEKSAN.COM  
622 745 419  
INFO@ARKITEKSAN.COM

**AROTZERIA OROKORREAN**  
ONDO PASA JAIK!

**Aratz Salazar Bilbao**  
Telf. 647 21 07 88 • [arotxin@gmail.com](mailto:arotxin@gmail.com)  
ELORRIO 48230 Bizkaia

ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

**UNAI GARAY**  
INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 • [unaigaray@yahoo.es](mailto:unaigaray@yahoo.es)

**MAPFRE**

VANESSA BERAZA  
Aseguruak eta inbertsioak  
MiFID II

946 582 448  
679 182 536  
Kanpokale, 10  
[vruizca@mapfre.com](mailto:vruizca@mapfre.com)

**NUKLEO**  
ileapaindegia

94 658 29 96  
Nizeto urkizu 14. behea  
48230 Elorrio Bizkaia

# Elorrioko Ferixa Nausikoak Euskal Herriko baserritarren eta artisauen erakusleihu izango dira domekan

Ekoizleen 46 stand, abeltzainen 21 postu eta artisauen 20 saltoki ipiniko dituzte azoka antolatzen duten gunean

## AZOKA • JONE GUENETXEA

Elorrioko jaiari izena ematen dien azoka datorren irailaren 3rako antolatu dute. Ferixa Nausikoa ohiko hitzordua izaten da Durangaldeko zein kanpotik etorritako baserritar eta artisauen uzta ikusi eta baita erosteko ere. Baserriko ortuarien eta ekoizleen 46 postu ipiniko dituztela aurreratu dute udal arduradunek. Abeltzaintzari dagokionez, 21 postu ipiniko dituzte: behiak, behorak, astoak, ahuntzak, ardiak... Bestalde, ardi moztaila erakustaldia ere egingo dute.

Artisauak ere presentzia handia izaten dute azokan. Aurten 20 postu izango dira: bitxiak, osagarriak eta beste hainbat produktu egongo dira salgai.

Jan-edana ere ez da faltako. Taloen txosna bi egongo dira bertaraten direnen gozamenerako. Eta El Despiste txarangak giroa alaituko du. Goizean, Elorrioko txistulariak kalejiran irtengo dira.

## Eguneko egitaraua

Azokaz gainera, jaietako lehenengo asteburuan askotariko ekintzez gozatzeko aukera izango da, eta Elenek eta Maddik kontzertua emango dute Txos-

nagunean, domekan, 13:00etan. Eta, arratsaldean, umeen danborradak Elorrioko plaza beteko du.

Pilota eta pala partiduak ere antolatu dituzte, 19:00etarako, kiroldegian. Hori-hori pilota klabak izango dira antolatzailea.

Xabi Aburruzagaren kontzertua 19:30ean izango da, plazan.

**Jan-edana ere ez da faltako. Taloen txosna bi egongo dira bertaraten direnen gozamenerako**

20:00etan, afaria egingo dute Anbotoperen eskutik. Txosnagunean.

Urtero arrakasta itzela izaten duen ekitaldietariko bat suzko zezenarena izaten da. Aurten ere gazteak eta helduak plazan batuko dira txinpartak darien zezenaren inguruan korrika egiteko. 22:15erako ipini dute hitzordua, plazan. Irailaren 4an, 8an eta 9an ipiniko dute martxan suzko zezena.

Azoka eguna behar den moduan amaitzeko, Correfoc Drakonia ibiltaria arituko da Elorrioko kaleetan, 22:30ean hasita.



Berrizko baserritarren postua iazko Ferixa Nausikoetan.



Iazko abelburuen postua Elorrioko azokan.

ESCAYOLAS  
**POSADA**  
**“TXIBO”**

Klaudio Gallastegi, 4 - Tel.: 639 40 57 44  
fe28265@telefonica.net

**B**  
**BETSAIDE**  
tu fundición de hierro líder

Elorri bultzatzen!  
**Ondo pasa jaietan!**

www.betsaide.com  
Betsaide, 1 Elorrio  
Tel.: 946 584 560  
info@betsaide.com

**ARKITEKTURA**  
**U3**  
**TEKNIKOAK**

**U3 Arkitektura Teknikoa**  
J.A. Agirre Lekube, 10  
48291 Atxondo  
Tel.: 672 256 352  
E-mail: info@u-3.es

**Eraikuntza-obra**  
**Proiektuen kudeaketa osoa**  
Obra berria, birgaikuntza,  
zaharberritze lanak eta  
legalizazioak

**santillán**  
instalaciones™

Gas naturaleko instalazioen, klimatizazio-sistemen, berokuntza-sistemen, hozte-sistemen, aire konprimatuaren eta abarren ingeniariaritzaren eta muntaia. Aire aldaketa itzela!

Betsaide ind. II.pab B5/B6 · 103 · 48230 Elorrio · Bizkaia  
Tel.: 946 238 000 · Fax: 946 238 550 · info@santillan.es · www.santillan.es



Izurtzako jaiak ondo pasa baina ez pasa!



## Izurtzako jaiak 2023

### Irailak 1, Barikua

**19:00** Triki-poteoa gasolindegian hasita.

**20:00** Txupinazoa.

### Irailak 2, Zapatua

**12:30** Fideua txapelketa.

**14:30** Platerak aurkeztea.

**15:00** Herri bazkaria.

**18:00** Bingoa.

### Irailak 3, Domeka (Santa Ageda Eguna)

**10:00** Kalejira Jaizalegaz.

**12:00** Iurretako Dantza Taldea.

**14:30** Herri bazkaria.

**16:30** 'Bikote bila' monologoa Alazne Etxebarriagaz.

**18:30** Lotxo taldea.

### Irailak 8, Barikua

**10:00** Kalejira Jaizalegaz.

**17:00** Gertufest, Santo Tomasen.

### Irailak 9, Zapatua

**19:00** Tortilla txapelketa.

**20:30** Tortillak aurkeztea.

**21:30** Herri afaria.

**22:30** Xaibor.

### Irailak 10, Domeka

**10:00** Kalejira Jaizalegaz.

**11:00** Umeen jolasak plazan.

**13:30** Igel txapelketa plazan.

**14:30** Jubilatuen bazkaria.

**17:30** Mus txapelketa Argintxun.

**17:30** Partxis txapelketa plazan.



**arbere**  
Aterik ate gasoleo banaketa

946 20 40 45  
630 05 89 10  
www.arbere.com



**GALDAKETA ETA  
SIDERURGIARAKO PRODUKTUAK**

Foseco Española, S.A.  
Elizalde azuza, 5 - 48213 Izurtza (Bizkaia)  
Tel. 94 620 25 00 / Faxe. 94 620 37 73  
115 Posta Kutxa - 48200 Durango (Bizkaia)

**VESUVIUS**

**IZURTZA • JOSEBA DERTEANO**

Gaur arratsaldeko txupinazoagaz, asteburu bi iraungo duten jaiak hasiko dituzte Izurtzan. Egitaraua ohiko ekimenek osatzen dute, aldaketa txiki batzuekin. Esaterako, txapelketa gastronomikoak dira jaietako osagai bat. Aurten bi izango dira eta euretariko batean aldaketa bat dago. Lehenengo txapelketan, zapatu honetakoa, kozinatu beharreko platera aldatu egiten dute urtero. Aurten fideua platera prestatu beharko dute parte hartzaileek. Aurreko urteetan paela, gisatu edo marmitako txapelketak egin dituzte, besteak beste. Irailaren 9ko bigarren txapelketa, ostera, urterokoa da: patata tortilla. Tortillarik onena egiten duena izango da irabazlea.

**Xaibor bigarren urtez jarraian dator; gauean arituko da aurten, herri afariaren ondoren**

**Mikroteatroak, musika, performanceak, txalaparta, zirkua... dira Gertufesteko osagai batzuk**

# Gertufest jaialdia eta Xaiborren emanaldia, besteak beste, gaur hasiko diren Izurtzako jaietan

Gertufest jaialdiaren bigarren aldia egingo dute Santo Tomas parkean, eta iaz baino egitarau zabalagoagaz dator



Iazko Gertufest jaialdiko irudia.

Musikari dagokionez, Xaiborren iazko emanaldiak harrera ona izan zuen udaleko ordezkarien esanetan eta aurten berriro ekarriko dute, irailaren 9an. Baina, aurten, arratsaldean beharrean, *prime time*-ean programatu dute, tortilla txapelketaren eta herri afariaren ostean. 22:30etik aurrera, berak izango du izurtzarrak dantzan ipintzeko ardura.

Ohiturari eutsiz, domeka honetan Santa Ageda ermitaren inguruan egingo dute jaiak. Iurretako dantza taldeak saioa emanango du eguerdian, eta, ondoren, bazkaritara batuko dira. Arratsaldean, Alazne Etxebarriak *Bikote bila* monologoa eskainiko du, eta gauean Lotxo taldearen erromeria egingo da.

## Gertufest

Iazko arrakastaren ondoren, Gertufest jaialdiak bigarren aldia egingo du, irailaren 8an, Santo Tomas parkean. Korrala sormen gunearen, udalaren eta herritarren artean antolatu dute. 17:00etatik aurrera artisauen azokagaz, askotariko ikuskizunekin, umeentzako jolasekin eta ipuin kontalarietara gozatu ahalko dute bertaritzen direnek.

Gertufesten ikusgai egingo diren ikuskizunen artean daude Juana Geysen eta la Imaginaria Banda Musical taldearen musika-performancea, Oztopo ta Jarrai-ren txalaparta, Quico Pugés-en musika, Breaking Durangaldea taldearen break dance saioa, Naita Produzioak konpainiaren *Mito izaki eta kondairak* mikroteatroa, Trotamun-

dos konpainiaren zirkua, Pabloa Savalaren grafiti sorkuntza eta Les Sauvage Dja.

Jan-edanerako aukera ere egingo da Iruntziren eskaintza bega-

noagaz (takoak, hanburgesak, taloak...) eta Johanaren enpanada argentinarekin.

Azokan honako postuak batuko dira: Art-IZAR, EskuARTE, Birak

Orbita, Jandameida, Parared.a, Nomadak graphiks, MuyTú, GoraKat, Flamenca y Morada, BioBizi, Monica Alonso, Xaboi Punpuila, Amalur, Kukupraka eta Mai Mai sorkuntza.

BASERRIKO OGIA

**ANTONIO TXIKI**  
CASERIO BERRIZETXE

Berrizetxe baserria  
Elizalde, 32 - Izurtza  
Tel.: 94 681 78 21

**GARATE**

Mañondo Baserria, 10  
Tel.: 946 815 600  
48213 Izurtza

**HERRIKO TABERNA**

Tel.: 946 808 908  
Elizalde auzoa, 20  
IZURTZA

URDAIAZPIKOA  
SALAMANGAKO TXORIZOA  
SOLOMO IBERIKOA  
SALTIXITXOIA  
GAZTA  
ERRAZIOAK

**RECYTRO**

BILKETA ZERBITZUA  
INSTALAZIOEN ERAISTE LANAK  
TROKELAN SUNTSITZE LANAK

Eleizalde auzoa, 47 - 48213 IZURTZA  
Tel.: 946 818 979 - Mov.: 639 438 197  
info@recytro.net - www.recytro.net

**urkiOil**

E.S. Otxandio E.S. Izurtza

# Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

## Batu Anbotoko whatsapp taldera



**Bidali alta**  
**688 635 041**  
**telefono zenbakira**

\* Izan zaitez berriemaile ere.  
Bidali zure argazki eta bideoak

**> anboto**



## 'Homenaje a Luis Mariano'

MUSIKA ELORRIO :: Irailak 8



## Luis Marianoren kantak Andoni Martínez Barañanoren eskutik

Luis Marianok (Irun, 1914) eza-  
gun egin zituen zenbait kanta  
berreskuratu ditu Andoni  
Martínez Barañano tenorrak  
*Memoria* diskoan, eta horiek  
entzuteko aukera egongo da  
Elorrioko Arriola antzokian,  
irailaren 8an. Martínez Barañano  
Gabriel Peso pianistagaz  
elkarlanean grabatu du lana  
eta tenor irundarraren hainbat  
abesti batu du. Besteak beste, *La*

*Belle de Cadix*, *Violetas Imperiales*,  
*C'est Magnifique*, *Ezin ahaztu*, *Mai-  
techu*, *Biarritz*, *Maria Luisa* eta *Zam-  
bra gitana*. Kontzertua 20:00etan  
hasiko da.

Luis Mariano Frantzian egin  
zen ezagun batez ere, 1945etik  
aurrera *La Belle de Cadix* opere-  
tagaz eta *Le Chanteur de Mexico*  
lanagaz. Horrela, operetaren  
printze bihurtu zen antzokietan,  
telebistan eta zineman.

### Irailaren 1ean

#### ZORNOTZA jaiak

**Umeentzako eskulan tailerra  
eta apar festa**, 17:30etik  
19:30era, Euba auzoan.  
**Tortilla txapelketa**, 20:00etan.  
**Mus txapelketa**, 20:30ean.

### Irailaren 2an

#### DURANGO antzerkia

**'Carbón Club' (Markeliñe  
antzerki taldea)**, 22:00etan,  
Aurora Abasolo parkean.

#### ZORNOTZA jaiak

**Mozorro Eguna (munduko  
kulturak)**, Euba auzoan.  
**Umeentzako bazkaria**,  
13:30ean.  
**Nagusientzako bazkaria**,  
15:00etan.  
**Alain Barañano eta Ander  
Aldazabal bertsolariak**,  
bazkalostean.  
**Bakioko Xerokiak**.  
**Hanburgesak eta oilaskoak**,  
iluntzean.  
**Xaibor**, 21:30ean.

### Irailaren 3an

#### OTXANDIO bisita gidatua

**Bittor Kapanaga hobeto  
ezagutzeko bisita gidatua**,  
11:00etatik 13:00etara,  
udaletxetik. Izena emateko,  
[euskerarenjatorria@gmail.com](mailto:euskerarenjatorria@gmail.com)  
helbidera idatzi edo 663 901  
248 telefonora deitu daiteke.

### Irailaren 3ra bitartean

#### DURANGO erakusketa

**'Emoiguzu gaur' erakusketa  
(Javier Santurtún)**, Arte eta  
Historia Museoa.

#### ZORNOTZA jaiak

**Meza**, 12:00etan, Euba auzoan.  
**Soinutxikie, trikitixa eta  
pandero kalejira**.  
**Txan Magoa**, 17:30ean.  
**'Luze edo motz' bakarriketa  
saioa**, 19:00etan.  
**Txokolatea** jaiari amaiera  
emateko.

### Irailaren 7an

#### DURANGO batzarra

**Al-Anon alkoholikoen  
senitarteko eta lagun taldea  
eguenetan batzartzen  
da**, 18:00etatik 20:00etara,  
Muruetatorre 11n (Landako  
Kiroldegjaren sotoan).  
Informazioa: 611 055 805.

#### ELORRIO giza katea

**Giza kate dinamikoak**,  
19:00etan, Aldatsekuan hasita  
(Jubilatuen Etxean). Honako  
hau izango da ibilbidea:  
Aldatsekua-Zumelegi Laguntza  
Zentroa-Elorrioko Plaza-Aldape-  
Beitia (Eguneko Zentroa)-  
Osasun Zentroa-Elorrioko  
Laguntza Zentroa. Ibilbidearen  
edozein zatitan elkartu daiteke  
dinamikara, antolatzaileek azaldu  
dutenez.

### Irailaren 8an

#### ABADIÑO jaiak

**Donien Atxa jasotzea**,  
19:00etan, Muntzaratz auzoan.  
**Talde Batuak taldeko  
dantzarien saioa**, 19:15ean.  
**Makro disko festa: Sound4  
taldea**, 20:00etan.  
**Paella eta tortilla  
lehiaketarako eta herri  
bazkarirako izen-ematea**,  
20:00etan.  
**Parrillada** Hazi Fundazioak  
lagunduta, 20:30ean.

#### BERRIZ antzerkia

**'Grimm anaien parkea' (Erne  
Produkzioak)**, 17:00etan,  
Berrizjauregi lorategian.

### Irailaren 9an

#### ABADIÑO jaiak

**Mozorro Eguna: Itsasoa**,  
Muntzaratz auzoan.  
**Auto klasikoen  
kontzentrazioa**, 10:30ean,  
Dorretxearen inguruan.  
**Umeentzako entzierroa**,  
11:00etan.  
**Mozorro lehiaketarako izen  
ematea**, 12:00etan.  
**Puzgarriak**, 12:00etan eta  
16:30ean.  
**Lehiaketarako paellen  
aurkezpena**, 14:00etan.  
**Ugasixo txapelketa**,  
18:00etan txosnan.  
**Apar festa**, 18:30ean.  
**Lehiaketarako tortillen  
aurkezpena**, 20:00etan.  
**Kontzertua: Hellwatch,  
Ainke + Llama a la pasma**,  
20:00etan, Xirimiri tabernaren  
kanpoaldean.  
**Taiwan orkestra**, 22:00etan.

#### ZORNOTZA mendi martxa

**Boroako Mendi Martxa**,  
09:00etan. Parte hartzaileek  
14 kilometroko martxa egingo  
dute, Munezorrotz, San Martin  
eta Arrizurigenetik igarota. Izen-  
ematea, 08:15etik 08:45era.  
Kamiseten banaketa eta  
hamaiaketakoa, 12:00etan.  
Giza probak, 13:30ean.  
Bazkaria, 15:00etan.  
**Eneko Laruzea Amezuaren  
kantaldia**, 17:00etan.  
**Bolo txapelketa**, 19:00etan  
(izena ematea, 18:30etik  
20:00etara).

ANBOTOko agendan ezer iragarri  
gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo  
deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

#### ZORNOTZA ikastaroa

**'Emakumeentzako defentsa  
pertsonala' (Iñaki Calvok  
zuzenduta)**, 10:00etatik  
13:30era, Ixerbekoa kiroldegian.

### Irailaren 10ean

#### ABADIÑO jaiak

**Joko parte hartzaileak**,  
12:00etan, Muntzaratz auzoan.  
**Bazkari herrikoia**, 14:30ean.  
**Umeentzako disko festa:  
Arima**, 18:00etan.  
**Txokolatea**, 19:30ean.

### Irailaren 15ean

#### BERRIZ antzerkia

**'Agurea, urpekaria eta  
itsasoa' (Hortzmuga  
konpainia)**, 17:00etan,  
Berrizjauregi lorategian (euria  
bada, eskolako patioan).

### Irailaren 16an

#### DURANGALDEA ekitaldia

**Durangaldeko Etxera Eguna**.  
**Manifestazioa**, 12:00etan,  
Durangoko Santa Anan plazatik  
irtenda.  
**Ekitaldia**, lurretan.  
**Bazkaria**, 14:30ean (txartelak  
ohiko lekuetan, irailaren 11ra  
arte).  
**Bazkalosteko bingo  
musikatuak**, 16:30ean.  
**Ostikada elektrotzaranga**,  
18:30ean.  
**DJ Kuku**, 23:00etan, Durangoko  
Intxaurren.

## Zinema

### :: Durango ZUGAZA ZINEMA

#### • **Campeonex**

barikua 1: 18:30 / 21:00  
zapateria 2: 18:30 / 21:00  
domeka 3: 17:00 / 19:30  
astelehena 4: 17:30 / 20:15  
martitena 5: 17:30 / 20:15  
eguaztena 6: 19:00

#### • **Blue Beetle**

barikua 1: 18:30 / 21:00  
zapateria 2: 18:30 / 21:00  
domeka 3: 17:45 / 20:00  
astelehena 4: 17:30 / 20:15  
martitena 5: 17:30 / 20:15  
eguaztena 6: 19:00

#### • **Las chicas están bien**

barikua 1: 18:30  
zapateria 2: 19:30 / 21:30  
domeka 3: 20:00  
astelehena 4: 20:15  
martitena 5: 20:15  
eguaztena 6: 19:00

#### • **Barbie**

barikua 1: 21:00  
zapateria 2: 17:00  
domeka 3: 17:45  
astelehena 4: 17:30  
martitena 5: 17:30

### :: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

#### • **Barbie**

barikua 1: 20:00  
zapateria 2: 20:00  
domeka 3: 20:00  
astelehena 4: 20:15

#### • **Ruby, aventuras de una**

**Kraken adolescente**  
zapateria 2: 17:00  
domeka 3: 17:00

# Markeliñeren 'Carbon club' antzezlanagaz itxiko dute udako kultur programazioa Durangon; 18 urte daramatza biran lan honegaz

Zapatuan izango da 'Carbon Club', 22:00etan, Aurora Abasolo parkean; Markeliñe konpainiak orain hamazortzi urte estreinatu zuen obra

## ANTZERKIA • A. M.

Udako kultur zikloa Markeliñeren *Carbon Club* klasikoagaz itxiko dute Durangon. Aire librean egiteko prestatuturiko ikuskizun hau orain hamazortzi urte estreinatu zuen Markeliñek, baina izandako arrakasta eta aitortzari eskerrak oraindino ere mantentzen dute. "Inoiz ere ez da berandu cabaret hau deskubritzeko", diote Markeliñekoek. *Carbon club*ek meatzarien istorio bat kontatzen du, kabaret formatuan, eta meatzariei egin gura izan dieten omenaldia ere bada. "Gauaren iluntasunak eta ikatzak bat egiten dute hemen; musika hasi eta argiak pizteagaz batera isiotuko dira emozioak, edertasuna eta komikotasuna", azaldu dute.

Urteotan 200 emanaldi baino gehiago egin dituzte, eta Londreseko Antzoki Nazionalean ere hiru bider programatu dutela nabarmentzen dute antzerki konpainiak.

Markeliñe antzerki konpainia Zornotzan sortu zuten, 1987an. Urteotan, hizkuntza propioa garatu du konpainiak, testurik bakoa eta keinuz betea. Sarri joan dira nazioartera euren lanak aurkeztera; besteak beste, Frantzia, Belgika, Herbehereetan, Austria, Finlandia, Mexikon, Kolonbian eta Hego Korean egin dira.

## Urteurren borobila

Durangoko San Agustin kulturgunea 25 urteko ibilbidea ospatzen ari da aurten. Mende laurdeneko jarduna gogoratu eta indarrak hartzeko, ekitaldi sorta berezia antolatu dute urte osorako. Oraintsu, urtea amaitu bitarteko egitaraua



Markeliñeren 'Carbon club'.

aurkeztu dute. Jon Maya eta Andres Marin dantzarien *Yarin* da egitarauko ikuskizunetariko bat; dantzari bakoitzaren sustraiak batzetik sorturiko ikuskizun berezia da, euskal kulturaren eta kultura flamenkoaren batuketak. Charo Lopezek *Verso a verso* plazaratuko du; Lorcaren, Machadoren, Miguel Hernandezen eta Santa Teresa de Jesusen poesiak errezitatuko ditu bertan, Luis Santana baritonoaren eta Jose Maria Berdejo pianistaren laguntzagaz. Arantza Arrazola San Agustin kulturguneko koordinatzaileak nabarmendu duen beste ekitaldietariko bat San An-

**"Inoiz ere ez da berandu kabaret hau deskubritzeko" diote Markeliñekoek; 18 urte daramatzate ikuskizunagaz**

**25 urteko ibilbidea dela eta, Vanessa Goikoetxea, 'Yarin' eta Rafael Álvarez 'El Brujo' datoz Durangora**

dre Jazz bandaren kontzertua da; Joan Chamorrok zuzentzen duen jazz musika banda da hau, 7tik 20 urtera bitarteko gazteek osatzen dutena; emanaldi honetan, Élia Bastida abeslariak kantatuko du, gonbidatu lez. Bestalde, Vanessa Goikoetxea durangarrak emanaldi berezia egingo du; Goikoetxeak emanaldi ugari dauka nazioartean, eta Durangoko emanaldirako tarte bat hartuko du San Agustinen urteurren ekitaldietan parte hartzeko. Rafael Álvarez *'El Brujo'* ere Durangora etorriko dela azpimarratu gura izan du Arrazolak; "bere azken hamar urteetako lanaren

*almagrea* da", azaldu du.

Horiez gainera, ohiko programazioa egongo da San Agustinen. Adibidez, Logela Multimediak *Anbotoko Mari* ikuskizuna egingo du, Marmar antzerki konpainiak *Arrainak bihotzean*, eta *Maluta* neguko zirkua antolatu dute Ganso & Ciagaz batera. Horrez gainera, Herria auzo elkarteak *Imanol oroitz* ekitaldia antolatu du urriaren 15erako. Bertan, hainbat artista durangarrek parte hartuko dute; besteak beste, Unai Iturriagak, Joseba Sarrionandiak, Aritz Lasargurenak, Irati Bilbaok eta Ander Ertzillak.



Penadas por la ley taldea.

## Guadaña Rock Fest jaialdia egingo dute Durangoko Plateruena kultur aterpean

Irailaren 30ean izango da jaialdia, Plateruena kultur aterpean; sarrerak 18 euroan daude salgai

## MUSIKA • A. M.

Ikasturtea martxan jartzeaz batera, punk doinuek Plateruena kultur aterpea eurenaganatuko dute irailaren 30ean. Hain zuzen ere, zortzi taldek parte hartuko dute bertan egingo den Guadaña Rock Fest jaialdian: Radio Crimen, The Guilty Brigade, Malas Cartas, Zero, Fracture, Stupid Fuckin People, Penadas por la ley eta Guerrilla Urbana taldeek.

Kontzertuak 19:00etan hasiko dira. Azken talde biak dira denetatik beterranoenak. Izan ere, Penadas por la ley taldea bere 30. urteurrenoko bira egiten dabil, eta Guerrilla Urbana *Cagando sangre* lanaren 40. urteurrena ospatzen. Radio Crimen 2012an sortu zuten Rat Zinger, Punk Guerrilla eta Los Carniceros del Norte taldeetan aritutako zenbait musikaririk. Oraintsu, *Un imperdible* singlea

kaleratu dute. Fracture bizkaitarrek ekingo diote jaialdiari, 19:30ean, eta distortsioz, doinu itsaskorrez eta erritmo biziez beteriko gualdiari Stupid Fuckin People taldeak emango dio amaiera, 02:20an.

Sarrerak sarean erosi daitezke, edota Durangaldeko Txalaparta (Durango), Oreka (Iurreta), Tipi Tapak (Abadiño), U2 (Mañaria) eta Sorgin (Zaldibar) tabernetan. Aurrez erosita, 18 euroan egongo dira salgai. Sarrerarik sobera geratuko balitz, egunean bertan erosi ahalko dira, 23 euroan.



Atara Zarata taldeko kideak, artxiboko irudi batean.

## Atara Zaratak 'Off the record' lana estreinatuko du irailaren 8an

Durungaldeko konpainiak lurretako gaztetxean estreinatuko du bere lan berria, 20:00etan

### ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Karmelo Fernández kazetari gaztea (Peio Velasco), eta Arantzazu Garmendia enpresaria (Irati Herreiro) dira Atara Zarata konpainiaren antzezlan berriko protagonistak. Enpresari arrakastatsua da Garmendia, eta praktiketan dabilen kazetaria Fernández; azken hamarkadetan euskal enpresagintzan egon den iruzurrik handiena deskubrituko du kazetariak. Ukitu absurdoen artean garatuko da Iker Garatek eta Nuria Romerok zuzenduriko komedia beltza. "Obrak Galder Perezen

Hiru geltoki lurrin liburua du abiapuntua, bertan oinarritzen da. Testua oso ona iruditu zitzaidan, irakurri eta maitemindu egin nitzen. Galderrri komentatu eta ez zidan batere arazorik ipini!", azaldu du Iker Garatek; irailaren 8an estreinatuko dute lana, lurretako gaztetxean, 20:00etan.

Atara Zarata antzerki konpainia 2011n sortu zuten, interes sozialeko gaiak lantzeko asmoagaz. Urteotan zortzi lan sortu dituzte eta beste bitan laguntzaile lez parte hartu dute. Ibilbide honetan, konpainiak dozenaka lagun

hurbildu ditu antzerkiaren mundura, eta, besteak beste, Eneko Sagardoy, Mariano Estudillo eta Markel Ganboa izan dira taldekide.

### Emanaldi bila

lurretakoaz gainera, beste emanaldi batzuk lotzeko lanean dabiltzala azaldu du Iker Garate zuzendariak. Hamarkada honetan zehar, Atara Zaratak hartu-eman estua garatu du San Agustin kulturgunegaz, Karrika antzerki taldeagaz eta Sorginolagaz.

## Berrizjauregiko lorategia, Grimmdarrena egun batez

'Grimm anaien parkea' ikuskizuna emango dute irailaren 8an, Berrizko Berrizjauregi lorategian, 17:00etan

### BERRIZ • A. M

Garbitzaile bi dira *Grimm anaien parkea* ikuskizuneko protagonistak: Jeff eta Joe. Urte luzez itxita egon den parkea garbitzea dago-kie, eta bertan Grimm anaien eskulturagaz topo egingo dute. Hortik aurrera, Txanogorritxo, Edurnezuri, Hansel eta Gretel, Loti ederra eta beste pertsonaia ezagun batzuk langile bien bizi-tzan sartuko dira. 45 minutuan zehar, ipuinek eta errealitateak bat egingo dute Berrizjauregiko lorategian.

Erre Produkzioak antzerki konpainiaren ikuskizuna da *Grimm anaien parkea*, eta Gorka Mínguez eta Alfonso Díez dira obra honetako protagonistak. 17:00etan izango da emanaldia, Berrizjauregiko lorategian. Euria eginez gero, eskolako patioan izango da. Berriz Kulturaz Blai zikloaren barruan egingo dute emanaldia. Irailaren 15ean, *Agurea, urpekaria eta itsasoa* ikuskizuna egongo da, eta 22an *Two Much Circusen Doble Bill*.



Gorka Mínguez eta Alfonso Díez.

## Gai librean

### TIK-TAK

Oporretan egotea goizetan alarmerik jarri behar ez izatea dela entzun duzu sarri. "Hiru egun geratzen zaizkit oporretarako, astelehenetik aurrera gura beste egin dezaket lo". Diotsu lagunak akiturik. Gogoratu zara maiz isilarazi duzula ditzosozko pi-pi-pi-piiii sintonia.

Mugikorrari edo iratzargailuari klik batekin agin diezaiokezu itzaltzeko. Badago, ordea, beste alarma bat: norberarena. Oporretan egonda ere, amatatzeko horren erraza ez dena, hain zuzen.

Kapitalismoaren errobedan sartuta, bizitza atzera kontaketa bat bezala ari zara bizitzen, eta ohartu zara alarma piztu zaizula zenbait konturekin. Ispiluaren aurrean paratu zara, eta zure buruari galderak egiten dizkio-



Miren Erdoiza Mujika  
Irakaslea

**Jakinarazpena jaso duzu mugikorrean: kutxabanken ohartarazpena. Zure egungo saldoa negatiboa da**

**Jakin badaki hemen ez lukeela sekula horrelakorik egingo. Baina Grezia Grezia da, noski.**

zu, inoiz egingo ez zenizkiola zin egin zenuen galdera horiek berberak: zaharregia al naiz unibertsitatean matrikulatzeke? Berandu al nabil etxebi-

zitza-plan batean sartzeko? Ama izan nahi dut? Atzerrira joatearena desira bat da ala ihesean nabili? Zenbat urte geratzen zaizkit gaupasak egiteko? Lan hau betiko da?

Eta zeure burua zigortzen hasi zara: agian denbora gehiegi daramazu oporretan, agian ez duzu ongi ulertu oraindik bizitzaren benetako zentzua zein den, agian beste alde batera begiratuta errazago da dena.

Jakinarazpena jaso duzu mugikorrean: kutxabanken ohartarazpena. Zure egungo saldoa negatiboa da

Greziaren egunsentia ikusteko alarma jarri duela esan dizu lagunak. Goizeko 5etan. Jakin badaki hemen ez lukeela sekula horrelakorik egingo. Baina Grezia Grezia da, noski.

Konturatu orduko irailaren 1a da gaur, eta aktibatu duzu gailua berriz, errobedak martxan jarrai dezan.

# “Vueltako bigarren etapa oso estresagarria eta kaotikoa izan zen, zoramena. Ez nuen horrelako egoerarik aurretik ezagutu”

Jokin Bilbao durangarra epaile lanetan dabil Espainiako Vueltan. Lehenengo egunak estresagarriak egin zaizkio, hamaika ezustekori aurre egin behar izan dielako



**Jokin Bilbao  
Mazaga**

**Espainiako Vueltako  
epailea**

**DURANGO | 1983**

pare bat eroriko egon ziren azken kilometroan. Talde bat ia osorik jausi zen. Hor lana izan genuen.

**Bigarren etapa oraindino konplikatua goa izan zen. Euriagaitik eta erorikoen arriskuengaitik, sailkapen nagusiari begirako denborak helmuga baino bederatzi kilometro lehenagora aurreratu ziren. Horrek zuzenean eragin zion zuen lanari. Zelan antolatu zineten?**

Helmugan teknologiaren laguntza dugu, ailegaera bideoan grabatzen da. Jakina, bederatzi kilometro aurrerago ez geneukan horrelakorik. Hiru epaile joan ginen bertara, tartean ni, eta gure mugikorretako kamarekin grabatu genuen. Eta sailkapen guztia geuk egin genuen, eskuz eta banan banan. Egoera horri beste zailtasun bat gehitu behar zaio. Ziklisten bizikletek txip bat dute eta horrek denbora hartzen laguntzen du. Baina etapa horretako mendate batean txintxetak bota zituzten errepidera, ziklista askok zulatua izan zituzten eta bizikleta aldatu zuten. Zer esan gura du horrek? Txip asko kotxeen goiko aldean zihozazela, zulatua izandako bizikletetan. Horrek asko zaildu zuen gure lana. Gero, bada birala egin zen bideo bat...

**Bai, epaile bat zaletuek mugikorrek grabatutakoari begira ageri dena, sailkapena osatzeko.**

Bai. Azkenean, badakizu, jendeak sareetan denerik ipintzen du, berritan zer gertatu zen jakin edo pentsatu barik. Epaile horrek txarto pasatu zuen horregaitik. Egindako lanari dagokionez, dena ondo irten zen. Ez dugu erreklamazio bakar bat ere izan denboren inguruan.

**Gaudentutako guztia gaudentuta, zer komentatzen duzue epaileon artean? Zelan dago animoa?**

Pasatu ditugun egoera horiek gehiago batzeko balio izan digute. Oso giro ona dugu. Epailetariko asko aurretik ere ezagutzen nituen. **Aurrerantzean zer eskatzen diozu Vueltari?**

Normaltasuna. Lasterketa normal joatea. Begira, badago enpresa bat helmugetak denborak hartzen dituen eta bideo-finisha kontrolatzen duena. Bada, asteleheneko etaparen ondoren eurretari bati esan nion: "Gaur zein arin egin duzuen sailkapena!". Eta erantzun zidan: "Arin ez, gaur normal egin dugu".

Jokin Bilbao Espainiako Vueltako etapa batean.

**TXIRRINDULARITZA • J. DERTEANO**  
Espainiako Vueltan lanean dabilzan epaileek ongi irabazia dute orain arteko soldata. Batez ere lehenengo etapa biak oso konplikatua izan dira. Ezohiko egoerek zuzenean eragin diote epaileen lanari. Jokin Bilbao bertatik bertara bizi izan ditu horiek guztiak.

Lehenengo eta behin, zelan hasi zinen epaile lanetan eta zelan sortu zaizu Vueltan parte hartzeko aukera?

Nire osaba epaile izan zen bere sasoiaren. Umetan beragaz joaten nintzen lasterketara eta jakin-mina sartu zitzaidan. Berari eskerrak hasi nintzen. Harrezkero, 24 urte daramatzat epaile lanetan. Pausoz pauso joan naiz, lasterketak eta itzuliak gaingituz, balioa erakutsiz eta apurka igotzen. Esaterako, bost bider aritu naiz Euskal Herriko itzulian. Gabonetan Espainiako epaileen batzordetik deitu zidaten Vueltan

arituko nintzela jakinarazteko. Eta pozik nago, azkenean urte askotako ibilbidearen errekonozimendu bat izan da eta. **Zeintzuk dira zure eginkizunak Vueltan?**

Vueltan hamahiru epaile gaude, bakoitza bere zereginekin. Esaterako, bat VAR-ean dago, futbolean

**Pasatu ditugun egoerek gehiago batzeko balio izan digute. Oso giro ona dugu epaileon artean. Asko aurretik ere ezagutzen nituen**

gertatzen den antzera. Errepidean hiru epaile kotxean doaz eta beste lau motoan. Ni motoan nabil. Igarobide guztiak hartzen ditut: mendikoa, tarteko helmugakoa... Han egoten naiz lehenengo nortzuk igaro diren apuntatzeko

eta ondoren puntuak zelan banatu jakiteko. Horretan ez nabilean, lasterketa kontrolatzea da nire ardura. Esaterako, ihesaldia dagoenean eurekin joaten naiz.

**Vueltako lehenengo etapetan ezohiko gauzak gertatu dira. Zuentzat estresagarria izan da?**

Vueltako bigarren etapa, batez ere, oso estresagarria eta kaotikoa izan zen, zoramena. Ez dut horrelako egoerarik aurretik ezagutu. Lehenengo aldia izan da.

**Lehenengo etapatik hasita, taldeko erlojupekotik. Talde batzuk iluntan heldu ziren helmugara.**

Zerua ilundu egin zen, euria hasi zen... Ni 19:30 inguruan heldu nintzen helmugara eta ilunduta zegoen. Azkenerantz ez zen ezer ere ikusten. Baina ez da hori bakarrik. Beste faktore bat ere bazegoen. Bartzelonan ez zuen euririk egin hiru hilabetean. Ondorioz, zorua koipetuta zegoen, eta oso labankor. Erorikoak egon ziren eta arriskutsua izan zen.

**Horrek guzti horrek zelan eragin zion zuen lanari?**

Lehenengo eta behin, pertsonalki eragin zigun, motoan gindoazela eta guretzat ere arriskutsua zelako. Bestelakoan, antolakuntzari

**Egindako lanari dagokionez dena ondo irten zen. Ez dugu erreklamazio bakar bat izan denboren inguruan**

eragin zion batez ere, baina, egoera kontuan hartuta, geuk ere erabaki batzuk hartu behar izan genituen.

**Esaterako?**

Taldekako erlojupekoan, azken kilometroaren barruan jausten direnei helmugara heltzea lortu duten taldekideen denbora berdina ematen zaie. Eta etapa horretan

## Silvia Trigueros 380 km-ko Dragon's Back probaren atarian: "Gatx da jakiten zer gertatuko den, baina gogotsu noa"

Exijentzia handiko proba da. laz, parte hartzaileen %40k baino gutxiagok amaitu zuten arauzko denboraren barruan

### MENDI LASTERKETA • J.D.

Aurreko urteetan, sasoi honetan, Tor des Geants probaren atarian zegoelako izango zen albistegai Silvia Trigueros. Baina aurten ez. laz bere lasterketa kutuna —hiru bider irabazi du— bigarren amaitu eta gero, proba hori albo batera utzi eta erronka berriei begira jarriko zela iragarri zuen. Bada, erronka berri horrek Dragon's Back Race du izena.

Erresuma Batuan, Galesko Conwy herrian dagoen Erdi Aroko gaztelu ikusgarritik ekingo diote probari parte hartzaileek, astelehenan, 07:00etan. Aurretik izango duten bidea ez da nolana hiko: 380 kilometro eta 17.400 metroko desnibel metatua, sei egunean zehar. laz parte hartzaileen %40k baino gutxiagok amaitu zuten proba arauzko denboraren barruan. "Gatx da jakiten zer gertatuko den,

baina gogotsu noa", adierazi du korrikalari abadiñarrak.

Probaren zailtasuna gogortasunetik haratago doa: ez dute kanpo-asistentziarik izango, kanpamentuetan esteren gainean lo egingo dute, ezingo dute GPSrik erabili... Orientatzeko ahalmena funtsezkoa da. Ildo horretatik, Trigueros antzeko proba batean parte hartua da, Italiako ultra trail batean. "Behin baino gehiagotan galdu arren, orokorrean ondo moldatu nintzen", gogoratu du.

Sasoi onean helduko da probara. Abuztuan PICA PICA ultra traila irabazi zuen (109 km). "Ez nuen uste hain sasoi onean nengoenik, denboraldi irregularra izaten ari delako, lesioengaitik. Gainera, aste bi lehenago joan nintzen hara eta entrenamendu espezifiko asko egin nituen Galesko erronkari begira", esan du Trigueros.



Silvia Trigueros abadiñarra mendiko lasterketa batean.

## Mendibeltz jokalarari bila dabil urteari bermeekin aurre egiteko

lazko moduan, aurten ere zailtasunak dituzte jokalarari nahikoa batzeko. 15 urteko neskei taldera batzeko gonbita egin diete

### ARETO FUTBOLA • J.D.

Orain bost urte sortu zutenetik hona, eskualdeko emakumeei areto futboleko aukera eskaintzen die Mendibeltz areto futbol klubak. Beti ez da erraza izan taldea osatzea. Azkenaldian Durangaldean emakumeen taldeen beherakada izan dela diote, eta iaz ere zailtasunak izan zituztela jokalarari nahikoa batzeko. Aurten egoera berdinean daude. Zortzi jokalarigaz, lau gehiago behar dituzte hamabira heldu eta denboraldiari bermeekin aurre

egiteko. Horregaitik, areto futbola gustuko duten 15 urtetik gorako neskei —2007a baino lehenago jaioak— taldera batzeko gonbita egin diete. "Zuen beharra dugu. Ez gara areto futbol talde bat bakarrik; kantxa barruan nahiz handik kanpora momentu onekin gozatzen dugun emakume talde bat gara", azaldu dute ohar batean.

Interesa dutenek bide bi dituzte klubagaz hartu-emanetan ipintzeko: Instagram kontua (@mendibeltz KT) eta helbide elektronikoa: [mendibeltz05@gmail.com](mailto:mendibeltz05@gmail.com).



Mendibeltz areto futbol taldea.

## Bigarren Mailan hiru jardunaldi joan direnean, Amorebietak galdu barik jarraitzen du

Berdinketa bigaz eta garaipen bategaz, bederatzigarren kokatuta dago sailkapenean



Javier Eraso, Andorraren kontrako partiduan. AMOREBIETA FUTBOL KLUBA

### FUTBOLA • J.D.

Amorebietak indartsu hasi du futboleko Bigarren Maila, La Liga Hypermotion deitzen dena. Hiru partidutan ez du bakar bat ere galdu: berdinketa bi eta garaipen bat. Joan zen asteburuan lortu zuen lehenengo garaipena, Lezaman. Lidertzan zegoen Andorra taldeari hiru gol sartu zizkion. Euretari-ko bat aurten fitxatu duen Javier Erasok sartu zuen. Partidu berezia izan zen Athleticek utzita etorri den Jon Morcillo zornotzarrarentzat ere, etxeko taldean lehenengoz jokatu zuelako.

Domeka arratsaldean bolada onari eusten ahaleginduko da Espanyol taldearen zelaian.

## San Fausto padel txapelketan parte hartzeko izen ematea hasita dago, irailaren 10era arte

Irailaren aurrefaseak jokatu dira eta urriaren 20an finalak

### PADELA • J.D.

San Fausto padel txapelketarako izen ematea hasita dago eta irailaren 10ean amaituko da. Final-lurrekora arteko partidua asteburu batean dira: irailaren 15eko astebu-

ruan haur eta gazteenak, irailaren 22koan gizonenak eta irailaren 29koan emakumeenak. Azken fasea urriaren 20ko asteburuan da. Izen ematea [inforpadelzaleak@gmail.com](mailto:inforpadelzaleak@gmail.com) helbidean egin daiteke.



Txapelketan erabiltzen diren padel batzuk eta txapelketaren egoera.



# **Okm:** *batzen gaituen distantzia*

---

**Egin zaitez anbotokide!**

**anboto**  
**kide**

## Botikak

**BARIKUA, 1** · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,  
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 2** · 09:00-09:00

DE DIEGO,  
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-13:30

BAZAN,  
URIBARRI 5 - DURANGO

GAZTELUMENDI,  
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

BALENCIAGA,  
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

NAVARRO,  
ARTEKALEA 6 - DURANGO

CAMPILLO,  
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

SARRIA,  
SASIKOA 17 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,  
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,  
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

RUIZ,  
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

GOIRIA,  
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

MELERO,  
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,  
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**DOMEKA, 3** · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,  
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA, 4** · 09:00-09:00

NAVARRO,  
ARTEKALEA 6 - DURANGO

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 5** · 09:00-09:00

BALENCIAGA,  
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 6** 09:00-09:00

GAZTELUMENDI,  
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**EGUENA, 7** · 09:00-09:00

IRIGOIEN,  
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

GUTIERREZ,  
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEN 14:00AKARTEKO EPEA



Zorionak  
guztioi!

### GOZATU GOZOTEGIA

Zorionak, **Alluitz (945. alea)**!  
Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
661 40 14 00  
gozatudurango@gmail.com  
Gozatu Gozotegia  
gozatugozotegia



Abuztuaren 28an **Pedrotxuk** urteak egin zituen. Zorionak gure sukaldariari. Besarkada handi bat familiaren partez.



Zorionak, **Adeitxo!** 8 urtetxo uztailearen 25ean. Jarraitu hain alai eta ona izaten! Askok gure zaitugu! Mosu potolo bat, mutil handi!



Abuztuaren 20an **Ametsek** 3 urte egin zituen. Zorionak gure etxeko mutil txikiari! Jarraitu gure egunerokotasuna momentu ederrekin betetzen. Ondo ospatu urtebetetze eguna. Mosu handi bat maite zaitugun danon partez.



Abuztuaren 31n **Asier Echevarriak** 43 urte egin zituen. Zorionak Yosu eta Carmenen partez.



Zorionak, **Oier!** Abuztuaren 30ean 5 urte egin dituzu. Besarkada handi bat eta muxu pilo bat Irati, aita, ama eta etxeko guztion partez. Askok maite zaitugu!



Irailaren 2an **Pablo Pascualek** 10 urte egingo ditu. Besarkada eta mosu pilo eta potoloak zure familiaren partez.

## Eguraldia

ZAPATUA ↓ 16° / 22° ☁

ASTELEHENA ↓ 18° / 31° ☁

EGUAZTENA ↓ 18° / 30° ☁

DOMEKA ↓ 16° / 26° ☁

MARTITZENA ↓ 16° / 30° ☁

EGUENA ↓ 16° / 26° ☁

## ESKELAK

946 816 558 · anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.



# "Bidea egin ahala gauza berriak probatzen joan gura dut"

Makrame teknika erabilita, Intza Olabarriak poltsak eta etxerako osagarriak egiten ditu Marapilo izenpean. Geologo lez sortu daitezkeen lanekin uztartu gura du proiektua



**Intza Olabarria Lejarza**  
Artisaua  
**ELORRIO | 1994**

**ELORRIO • AITZIBER BASAURI**  
Intza Olabarriak Marapilo proiektuari ekin zion udaberrian. Bidea egin ahala joan gura du jasotako eskariei erantzuten, bide berriak probatuz.

**Zelan sorturiko proiektua da Marapilo? Zein helburugaz?**

Eskulanak egitea gustatzen zait eta beti gura izan dut horrelako proiektu bat aurrera atera. Baina beste lan batzuk izan ditut eta ez dut astirik izan. Aurten aukera sortu zait ahalegin eta denbora guztia proiektu honetan erabiltzeko.

**Makrame korapiloak eginez poltsak eta dekoraziorako osagarriak egiten dituzu. Zein da arrakastatsuen?**

Mandalak dira gehien erakartzen dutenak. Lan handia eskatzen dute eta eragin handia dute. Baina ezin dira edozein tokitan ipini; pentsatu egin behar da. Gainera, atzean dagoen lana baloratzea, prezio duin bat ipintzea, oso gaxa da. Jendeak ez du behar den beste baloratzen hori. Poltsekin berdin gertatzen da. Hala ere, gehiago saltzen dira. Batez ere, belarritakoak, lepokoak... Hondartzan banan-banan baturiko kristalekin egiten ditut. Askotan harritu egin

nau kristal bi ia igualak topatzea. Itsasoak bueltaturiko kristal horiek esku-poltsetan ere erabili izan ditut.

**Naturak harri berezi bat ematen badit, harri horregaz zerbait sortzea gustatzen zait**

**Naturak emandakoak erabiliz sortzen dituzu osagarriak?**

Bai. Umetatik harri bereziak, oskol txikiak eta kristalak ekarri

izan ditut etxera, hondartzara joan naizen bakoitzean. Betidanik gustatu zait natura, geologia ikasi dut eta harriek asko transmititzen didate: nondik datorren, duen historia... Bada, naturak harri berezi bat ematen badit, horregaz zerbait sortzea gustatzen zait. Hondartzan baturiko makilekin etxerako ispilu handi bat ere sortu dut. Bestalde, kalamua erabiltzen dut poltsak egiteko; ingurumenean duen eragina ez da material sintetikoaren berdina.

**Non ikasi duzu?**

Interneten ikusita, sare sozialetan ipinitako bideo tutorialekin. Hasieran korapilo itzela nuen esku artean; korapilo mordoak ikasteko. Bada, ezinbestean Marapilo behar zuen proiektuak. Oraindino ikasten jarraitzen dut, korapiloak askatzen.

**“Hasieran korapilo itzela nuen esku artean; korapilo mordoak ikasteko. Ezinbestean 'Marapilo' behar zuen proiektuak”**

**Makramea modan dago?**

Bai, oso modan. Asko ikusten dira makramea erabilita sorturiko osagarriak.

**Zelan definituko zenuke Marapilo?**

Naturak emandakoa aprobeztatuz, bertotik ideiak hartuz, bitxiak, poltsak, dekorazio osagarriak... sortzeko proiektua da. Intzari sormenak eskatzen diona garatzeko eta publikoari eskaintzeko sortua. Haria askatzen joango da, apurka. Bidea egin ahala gauza berriak probatzen joan gura dut, eskariei erantzuten, helburu jakin barik.

**Nora eramango zaitu Marapilok?**

Ez dakit. Honetaz bizitzea oso gaxt ikusten dut. Dena ondo bada, salmenta puntuak zabaltzea ere pentsatu dut. Proiektuagaz aurrera egin gura dut, zelan doan ikusi, geologo lez sortu daitezkeen lanekin uztartuz.

## Lau-hortza

Markel Sanchez Zelaia Behargina




### Turistak

Ezagutzen ari den leku horretako esentzia harrapatu gura izaten du turistak, benetakotasuna. “Ez zitzaigun leku hura askorik gustatu, turistaz beteta zegoen” dio, edo beste behin leku oso “autentiko” batean egon zela, leku asko artifizialak edo turistentzako eginak direla jakitun.


Gero Bilbotik zoaz eta arratsaldeko seietan ilehori bikote bat ikusten duzu terraza batean jarrita, paella deitu dioten kolorezko arroz bat jaten poz-oz, eta grazia egiten dizu, zu beste nonbaiten egon zarenean gauza bera egin ez balizute lez.

Erraza da turistak engainatzea. Behin entzun nuen Kuban otarrainak izozkailutik atera, pita muturrean lotu eta itsasora botatzen dituztela, turisten begi aurrean arrantzatzen. Munduan 13 monasterio daude Jesukristoren zakil zati bat dutela diotenak, hau da, jaiotzean zirkunzidatu zioten zati horixe bera. Pentsatzen dut egongo dela hunkitzen denik zera hori ikusterakoan. Nik ere, aitortu behar dut, behin turista valentziar batzuei kontatu niela Pinondoko erreka kontrako harrizta hori Durangoko plaia zela, eta eguraldi onarekin lepo betetzen genuela.

AEBetan, Nashvillen, Atenasko Partenoiaeren erreplika bat dute, eskalara egina eta Antzinaroan zegoen bezalaxe apaindua. Non sentituko da bisitaria benetako Partenoian? Atenasko aztarnetan ala erreplika erreala horretan? Agian gezurrezko hori da benetakoena. Agian engainua gurago dugu, ipuin hori bizi errealitatea baino. Agian ipuin horiek errealitatea sortzeko gai ere badira. Agian Durangok plaia bat dauka, eta ez dugu erabiltzen inork ez digulako esan plaia bat dugunik.



Ez baduzu hanka sartu nahi, sartu zure iragarkia IragarkiLaburrak.eus atarian



Hemen eta online